



Ekonomia solidario baterako hiztegi feminista

Carlos Askunze · Yolanda Jubeto · Luciana Marcó · Zaloa Pérez
Irudiak: Liliana Aldai



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Ekonomia solidario baterako hiztegi feminista

Carlos Askunze • Yolanda Jubeto • Luciana Marcó • Zalao Pérez
Irudiak: Liliana Aldai



reas
euskadi

ekonomia alternatibo eta solidarioaren sarea
red de economía alternativa y solidaria

Hiztegi hau «**Feminismoz blai! Ekonomia solidario feministago baterako proposamenak**» proiektuaren barruan argitaratu dugu. Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantzazioa jaso du.



Ekonomia solidario baterako hiztegi feminista

Carlos Askunze, Yolanda Jubeto, Luciana Marcó eta Zaloa Pérez

Irudiak: Liliana Aldai

Argitalpen honek ekoSolFem - REAS Euskadiko Ekonomia Solidario eta Feministako taldearen ekarpen baliotsuak jaso ditu.

ISBN: 9788409238781

Lege-gordailua: LG BI 1660-2020

Diseinua eta maketazioa: Ruth Alday

Itzulpena: Belaxe Koop. E.

Inprimaketa: AS Comunicación S.L.

REAS Euskadi

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Red de Economía Alternativa y Solidaria

Ekonopolo (Polo de Economía Social y Solidaria)

Plaza de la Cantera 4, 2º, 48003 Bilbao

Tel.: 944 160 566

reaseuskadi@reaseuskadi.net

@REASEuskadi

www.reaseuskadi.eus



Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 (CC BY-NC-SA 4.0)

Lan hau nahi bezala kopiatu, banatu eta zabaldu daiteke, egilea aipatu eta xede ez-komertzialetarako erabiliz gero. Lan hau aldatuz gero edo lan honetatik abiatuta besterik sortuz gero, honek daukan lizentzia berarekin baino ezin izango da banatu. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/4.0>.



FSC
FSC-C015022

Labore jasangarriekin egindako
paperean inprimatua

Aurkibidea

Aurkezpena

Izendatu, sortu, eraldatu	04
Ekonomia solidario feminista bat bizitzaren	05
Erabiltzeko jarraibideak	07
Elkarlanean oinarritutako proiektua	08

1. Menderakuntza ugariko sistema hau ulertzeko gakoak

Androzentrismoa	12
Rolak eta genero-estereotipoak	14
Binarismoa eta sexu-genero sistema	15
Lanaren banaketa sexuala	17
Sexismoa, matxismoa eta mikromatxismoa	18
Heteronormatibitatea	19
Patriarkatua, heteropatriarkatua	21
Botere-harremanak	22
Berdintasun eza	23
Indarkeria matxistak, indarkeria ekonomikoa	24
Zaintza(ren krisia eta kate globalak)	25
Zaintzaren etika (atzerakoia)	28
Kapitalismo heteropatriarkala	30
Genero-arrakalak	32
Segregazio horizontal eta bertikala	33
Beirazko sabaia	34
Zoru itsaskorra	35
Antolakundeen kultura	36
Generoa ezartzeko prozesuak	37
Kooptazio-prozesuak eta parekoen arteko elkartasuna	39

2. Eraldaketarako proposamenak

Bizitzaren iraunkortasuna	42
Ekonomia solidarioa	43
Ekonomia feminista	44
Elkarmendekotasuna	46
Zaintzaren ekonomia	47
Lana	48
Ekonomia ekologikoa	49
Ekomendekotasuna	50
Deshazkundera	51
Ekofeminismoa	52
Ekonomia komunitarioak	54
Antolakunde bizigarriak	57

3. Bizitza iraunkorren eraikuntzan aurrera egiteko bitartekoak

Deseraikitzea	60
Pertsonala politikoa da	61
Interseksionalitatea	62
Ahizpatasuna	64
Erantzunkidetasuna	64
Agentzia-ahalmena	66
Genero-premia praktikoak eta genero-interes estrategikoak	69
Genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketa	70
Ekintza positiboa	71
Genero-zeharkakotasuna	72
Ahalduntzea	73

Oharrak

Definizioen aurkibide alfabetikoa

Aurkezpena

Erabiltzen dugun hizkera munduarekin daukagun erlazioaren bitartekari sinbolikoa da: gaiak eta esperientziak argitu ditzakegu hizkuntzari esker; zerbait izendatzean, sortu eta eratu egiten dugu (Silvia López).

Talde-lan honen zati handiena mundu osora zabaldu den COVID-19aren pandemiaren erdian egin dugu. Izan ere, hiztegiko termino asko konfinamenduan idatzi ditugu eta haiei buruz hitz egiteko bilerak telekonferentzia bidez egin behar izan ditugu. Gure gizartea eta gure planeta, sistema bera eta bere erakunde politiko, sozial eta ekonomikoak bizitza zaintzeko prestatuta ez zeudela ikusi dugu, kezkatuta, zalantzak jota eta haserre ikusi ere, baina... ez al ginen horretaz lehenago ohartu?

Feminismoak hamarkadak daramatza salatzeko gobernatzeko gaituen kapitalismo heteropatriarkalak ez duela bizitza erdigunean jartzen. Bai eta bizitzari bizkarra emanez –eta askotan haren aurka– eratzeko delatzen ere. Bere etekin-gosea, batetik, eta uniformetasuna ezartzeko, gorputzak kontrolatzeko eta pentsamoldeak kolonizatzeke daukan gogo bizia, bestetik, guztiz kaltegarriak dira bizitzaren eta planetaren iraunkortasunerako. Pobreziaren eta berdintasun ezaren hedapena, segurtasunik eza eta indarkeria –emakumeen aurkakoak bereziki–, ingurumenaren suntsiketa eta genero, sexu nahiz arrazaren alorreko aniztasun disidenteen aurkako jazarpena sistema suntsigarri horren ondorioen katalogoko ale batzuk baino ez dira.

Testuinguru horretan sortu da egungo pandemia eta, osasun-krisi bat dela onartuta ere, bizitzaren aurka gero eta gogorrago jotzen du-

ten krisi ziklikoen barruan kokatu behar dugu: «2008ko krisi ekonomikoaren ondorioei gehitu zaio COVID-19aren krisia eta ondorio ekologikoak, sozialak, ekonomikoak eta zaintzaren alorrekoak ere badituen zibilizazio-krisi baten barruan kokatuta dago. Gure artean gelditzea den eta datozen hamarkadetan jasango dugun zibilizazio-larrialdiaren argitan berrikusi behar dugu egunotako larrialdia»². Testuinguru horretantxe aurkeztu dugu esku artean daukagun argitalpena.

Izendatu, sortu, eraldatu

Topiko bat da esatea izenik ez duenak ez dela izanik. Gaizki izendatzen denak benetan existitzen dena ezkutatzeko duela gehitu dezakegu. Gure historia, gizateriaren historia, planetarena, ezkutatutako eta faltsututako gertaerez beteta dago. Botereak (sozialak, ekonomikoak, politikoak, erlijiosoak, kulturak...) irabazleen kontakizunen bidez erroto eta justifikatu izan dira, eta errealitateari buruzko irakurketa eta interpretazioak inposatu dituzte azkenerako.

Antolamendu sozial guztietan gertatzen da hori, baina bada bat berezia, zeinetan munduaren zati batek –gizonek– beste erdiari –emakumeei– bere kontakizuna inposatu baitio. Kontakizun horrek ukatu egin du sexuaren eta generoaren alorreko identitate eta orien-

tazioen aniztasuna. Pertsonen artean sortu-tako sufrimendua eta berdintasun eza dago kontakizun horren azpian.

Mugimendu feministak narrazio handi horiek deseraiki behar izan ditu, izenez aldatu, ezkututzen dituzten zapalkuntzazko errealtateak eraldatzen laguntzeko. «Hizkuntza ez baita errugabea. Emakumeak etxean itxita egon dira urte luzez, eta hizkuntzak ez zituen aipatzen, ez baitzeuden bizitza publikoan. Gauzak aldatu egin dira eta orain hitz berriak behar ditugu errealitate berriak izendatzeko. Patriarkatua hizkuntzan barneratuz joan dela ikusi dugu, gu ikusezin bihurtzeraino, baina okerrena da hori barneratu, eta normaltzat jo dugula gu ezkutuan geratzea eta guri buruz maskulinoan jardutea, bertan ez bageunde bezala»³.

Ikuspegi horretatik abiatuta sortu dugu hiztegi hau. Hitzak eta kontzeptuak behar ditugu gure jarduna teorizatu eta hobeto ulertzeko, partekatzeko, batzuetan esanahi berriak emateko eta gure eztabaida kolektiboetan txertatzeko. Eta behar ditugu, halaber, hainbeste nahi eta behar dugun sakoneko eraldaketa sozialean aurrera egiten laguntzen diguten imajinario eta kontakizunak sortzeko.

Feminismoaren, eta zehazki ekofeminismoaren, ekarpenari jarraikiz sortu diren ekonomia solidarioko sareen premia dugu bereziki, eraldatu nahi dugun sistema sozioeko-

nomikoa ahalik eta modu zorrotzenez aztertu eta deskribatzeko, sortu nahi dugun etorkizuna izendatzeko eta hori guztia lortzeko behar ditugun tresnak eta bideak identifikatzeko.

Ekonomia solidarioa feminista bat bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko

Ekonomia feministak, ekonomia ekologikoarekin elkarlanean, paradigma berri bat garatu du azken urteotan. Paradigma horrek egungo sistema ekonomiko kapitalista auzitan jarri eta ekonomia kontzeptua bera birdefinitu du, arreta bizitzaren iraunkortasunean jarrita.

Ikuspegi horren arabera, ekonomia zera da: bizitza bera erreproduzitzeko gaitasunari eutsiz (arloan sozialean, kulturaletan nahiz ekologikoan), pertsonen premiak asetzeko eta bizitza duina izateko ezinbesteko baldintzak sortzeko beharrezkoak diren baliabide eta prozesu sozialen multzoa.

Beraz, ekonomia ulertzeko eta praktikatzeko modu horrek bizitzaren iraunkortasuna bera jartzen du bere helburuen eta funtzionamenduaren erdigunean. Horrez bidez ongizatea eta bizitza duina bermatu nahi zaie pertsona guztiei, edozein egoeratan daudela eta planetako edozein lekutan bizi direla ere, planetarekiko erlazio iraunkor baten barruan.

Pentsamendu horrek gure biziraupenerako funtsezkoak diren bi ideia dauzka oinarritzat: gizakiok elkarren mendekoak garela eta naturaren mendekoak garela.

Gizakiok beste pertsona batzuekin erlazioatze-ko eta zainduak izateko premia daukagula adierazten du elkarmendekotasunak. Jaiotzen garen unetik hiltzen garen arte, beste pertsona batzuen zaintza behar dugu, batzuetan handiagoa, beste batzuetan txikiagoa. Era berean, gure oinarritzko premiak asetzeko garaian ere garrantzi handia daukate eratzten ditugun erlazio horiek. Horrela, bada, ordaindu gabeko lana ikusaraztearen eta balioestearen alde egiten dugu, generoak ekonomian duen eginkizunaren inguruan hausnartzen lagunduko baitigu horrek. Era berean, proposamen batzuk identifikatu ditugu, bizi dugun errealitate bidegabea eta desorekatua eraldatzeko.

Ekomendekotasunaren arabera, bestalde, natur ingurunearekin erlazioatzen garen izakiak gara eta haren mende gaude. Naturak, bere balioabideek eta, oro har, ingurumeneko baldintzek egiten dute bideragarri gu planeta honetan bizi ahal izatea eta haiek bermatzen dute bizitzaren beraren erreproduktzioa etorkizunean.

Alde horretatik, Elkarmendeko eta ekomendeko bizitza horien iraunkortasunaren zerbiztura egon behar du ekonomiak, eta gure planetan bizi diren izaki guztien (gizakiak izan

ala ez) ingurumen-baldintzak iraunarazten lagundu behar du.

Ekonomia solidarioa ekofeminismoaren ekarpekin aberastu da azken urteotan eta bere ikuspegia eta praktika birdefinitu du ekarpen horiei jarraikiz. Horrenbestez, erdigunean pertsonak, komunitateak eta haien ingurune sozioanbientala –eta, ondorioz, bizitzaren iraunkortasun hedatua bermatzen duten prozesuak– jartzen duen (funtzionamendu kapitalistaz bestelako) praktika ekonomiko baten nondik norakoak finkatzen dituzten jardunen multzo gisa birdefinitzen da ekonomia solidarioa.

Bizitzaren iraunkortasuna da hiztegi honen abiapuntua eta helmuga, eta feminismoaren ekarpenetan oinarritu gara, oro har, eta ekonomia feministarenetan, bereziki. Abiapuntu diogu, ikuspegi horretatik abiatuta aukeratu ditugulako gure inguruan gertatzen dena ulertzen eta argitzen laguntzen diguten zenbait termino. Eta helmuga, horixe delako ekonomia postkapitalista berri baten eraikuntza kolektiboan ekonomia solidarioko proiektu eraldatzaileei zentzua ematen dien helburua.

Yolanda Jubetok eta Mertxe Larrañagak azpimarratzen duten bezala, eraikuntza horretan bat egiten dute ekonomia feministak eta solidarioak: «Ekonomia Feministak -EF- eta Ekonomia Solidarioak -ES- aldarrikatzen dute pertsonak eurak, giza harremanak eta oinarritzko premien estaldura izan behar direla hel-

buru nagusia (...). Azken batean, ESK eta EFk elkarmendekotasunean, elkarrekikotasunean eta demokraziaren zein gardentasunaren bultzadan oinarritutako harreman ekonomikoak defendatzen dituzte, pertsonen arteko ekitatea euren jarduketako ardatz gidari nagusia dela kontuan hartuta»⁴.

Azken batean, ekonomia solidario feministaren eraikuntzan sakontzea da helburua, bizitzaren iraunkortasuna jarriz eredu horren ikusmolde eta proposamenen erdigunean, horren bidez antolakunde bizigarriak eta iraunkorrak sortzen eta gizartean esku hartzeko ekimenak eta tresnak garatzen laguntzeko, ekonomia bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzeko helburuarekin guztia ere.

Erabiltzeko jarraibideak

Esan beharra dago argitalpen hau prestatzeko garaian gure asmoa ez dela izan ekonomiarekin zerikusia duten termino feminista guzti-guztiak jasotzea, gure lanerako erabilgarrienak eta aplikagarrienak aukeratzea baizik. Ekonomia solidario feminista garatzen laguntzen duten hizkuntza eta narrazio komunak osatzen joatea da hiztegiaren helburua.

Lehenik eta behin, ekonomia solidarioaren mugimenduari begira osatu dugu hiztegia, bereziki, REAS Euskadiri begira, apustu estrategikoa

egiten baitu feminismoa bere jardunean txertatzeko: bai bere diskurtsoan, bai bere sareko antolamenduan eta sarea osatzen duten antolakundeetan, bai jarduera ekonomiko alternatibo eta eraldatzaileen alorrean bultzatzen dituen ekimenetan. Apustu estrategiko horren barruan garrantzi berezia ematen diote antolakunde bizigarriak sortzeari, eta «Bizigarri⁵ REAS Euskadiren genero-ekitatearen aldeko plana» prestatu dute horretarako. Hiztegi hau antolakundeak eraldatzen laguntzeko tresna bat izatea nahi dugu.

Ilido horretatik, gure planetak behar duen aldaketa kultural, sozial, politiko eta ekonomikoan interesa duten beste sare, antolakunde eta pertsonekin partekatu nahi genuke hiztegia. Iruditzen zaigu baliagarria izan daitekeela, batez ere hezkuntzaren eta sentsibilizazioaren arloetan, hala antolakundeen barnean, nola gizartean egiten duten lanean.

Edonola ere, hiztegi hau modu desberdinetara irakur eta erabil daiteke:

- Hiztegia bertsiorik klasikoenean hartuta, kontzeptuak hurrenkera alfabetikoan antolatatu ditugu, edozein hiztegitan egiten den modura (ikus amaierako aurkibide alfabetikoa).

- Era berean, proposatzen dugun eraldaketa sozial, ekonomiko eta kulturalaren kontakizuna balitz bezala ere irakur daiteke. Ikuspegi

horri jarraikiz, hiru ataletan multzokatu ditugu kontzeptuak. Lehenik, bizi dugun aurpegi ugariko menderakuntza-sistema ulertzeko gakoak eskaintzen dituzten terminoak dauzkagu. Bigarrenik, hipotesi eta ikuspegi pluraletatik, ekonomia justizia sozialeko, iraunkortasunezko eta ekitatezko irizpideetatik ulertzeko eta lantzeko beharrezkoak diren proposamenei buruzko definizioak. Azkenik, dimentsio anitzeko ikuspegi batek, bizitza iraunkorrek eraikitzen jarraitzeko eskuragarri dauden zenbait tresna eta baliabide jaso ditugu azken blokean.

•Bukatzeko, kapitulu bakoitzaren hasieran ageri diren kontzeptu-mapen bidez ere irakur daiteke argitalpen hau. Ekonomia solidario feminista eraikitzeko jorratu nahi dugun bidea marrazten dute mapa horiek.

Definizio bakoitzean, hiztegian agertzen diren beste termino batzuk ere eman ditugu maiuskula txikietan.

Termino horiek guztiak irakurtzera gonbidatzen zaitugu eta hiztegi hau gure egiteko moldeei buruzko hausnarketa eta berrikusketa kritikoko prozesuak sustatzeko tresna gisa erabiltzera eta gure ingurunea sensibilitzatzeko. Historian zehar bazterrean egondako guztia erdigunera itzultzeko. Bat eginik, denok hartuko gaituen gizarte ez-sexista eta ez-patriarkal bat eraikitzeko proiektu feministan laguntzeko.

Elkarlanean oinarritutako proiektua

Talde-lanaren bidez egin dugu hiztegi hau. Bertan parte hartu dute hiztegiaren lau egile zuzenen buruek eta eskuek, bai eta ekoSolFem - REAS Euskadiko Ekonomia Solidario eta Feministako Taldeak ere. Taldeko kideek oso ekarpen baliotsuak egin dituzte hasierako diseinuari, proiektuaren jarraipenari eta azken emaitzari buruz. Eskerrak eman nahi dizkiogu ekoSolFem taldeari, garrantzi handiko lana egiten ari baita REAS Euskadi erakunde feministagoa bihurtzeko eta, horri jarraikiz, benetako ekonomia solidarioarekin duen konpromisoa sendotzeko.

Dagoeneko aipatu dugu argitalpen hau bere kontzeptu-mapen bidez irakur daitekeela. Eskerrak, beraz, Liliana Aldai marrazkilaria ere, haren inplikazio, maitasun eta dedikaziorik gabe ez baikenuen hiztegi hau osatzerik izango, eta eskerrak Ruth Alday diseinatzaileari, argitalpena inprimatzeko prest uzteagatik.

Euskarazko testua berrikusteaz Belaxe Kooperatiba, Yolanda Jubeto eta Amaia Naveda arduratu dira. Bihoakie gure esker ona beren dedikazioarengatik eta euskararekin duten konpromisoarengatik, gure hizkuntzak testu berriak behar baititu zabaltzeko eta komunikatzeko.

Eskerrik asko, halaber, Bizkaiko Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzako Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari, REAS Euskadiren «Feminismoz Blai! Ekonomia solidario feminis-

tago baterako proposamenak» proiektuaren barruan egin dugun hiztegi hau argitaratzen laguntzeagatik.

Azkenik, esan beharra dago hiztegi hau ez litza-tekeela existituko feminismoaren genealogia eta egungo errealitatea osatu duten teoriarari eta ekintzaileen lanik eta irmotasunik gabe. Haiek izendatu dute, edo aldatu diote izena, ikuspegi kritiko batetik egin ere, errealitate bidegabe, desorekatu eta jasanezin honi. Era berean, bes-telako etorkizun bat identifikatu dute, eta hura sortzeko konpromisoa hartu. Haiei zor dizkiegu argitalpen honetarako ezinbestekoak izan zaiz-kigun aipu, ikuspegi eta terminoak.

COVID-19aren pandemiari buruz hitz eginez hasi dugu aurkezpen hau, eta harekin bukatuko dugu. Ekonomia kritiko, alternatibo eta eraldatzaileak –eta haien barruan ekonomia feminista, ekolo-giko eta solidarioa– etorkizun berri bat erai-kitzeko beharrezkoak diren aldaketa sakonak eta trantsizioak lantzeko agenda estrategikoa prestatzen ari dira, eta bizitza prozesu sozioeko-nomiko, kultural eta politikoen erdigunean kokatzen duten proposamen zehatz ugari identi-fikatzen ari dira hainbat esparrutan. Horretantxe jardun du 2020ko ekainean Internet bidez egin

den Ekonomia Eraldatzaileen Munduko Gizarte Foroko Bat-egite Feministak. Haien ekarpen ba-tekin bukatuko dugu aurkezpena:

Bizitzaren jarraitutasunarekin konprometitu-tako ingurune ekonomiko eta sozialen aldetik, indartu egin da lehentasunak aldatzeko agen-da, produkzioa antolatzeko, elkartrukerako edo kontsumorako moduak aldatzea xede dituen-a. Pandemiak adierazten duen kapitalismoaren porrot garbiaz gain, proposamen eraldatzaileei oinarriak eta tresnak ematen dizkien esperien-tzia-piloa dago: finantza-arkitektura berria, justizia fiskala, bidezko merkataritza, diru al-ternatiboak, ekonomia sozial eta solidarioa, agroekologia, elikadura-burujabetza eta abar.

Etxebizitzaren, hezkuntzaren, oinarritzko diru-sarreraren eta osasunaren alorretan guztion oina-rrizko beharrei erantzutea lehentasuna denez, nahitaezkoa da fortuna handiei zergak ezarri behar diren inguruan kotsentsu sozial zabala lortzea, eta ekonomia suspertzeko modu alter-natiboen alde egitea. Ildo horretan, birdefinitu egin behar dira sozialki beharrezkoak diren lanak eta biozida direnak, eta lan- eta produkzio-eske-ma berrien arabera birmoldatu, ikuspegi ekofe-ministak aitzat hartuta⁶.



Gure abiapuntu tristea...

Heteropatriarkatuaren itsasoa

Kapitalismo heteropatriarkalaren lurraldea

Botere-harremanen IBAIA

Genero-arrakalak

1. Menderakuntza ugariko sistema hau ulertzeko gakoak



Androzentrismoa

Gizonezkoen nagusitasuna da, beharbada, historian zehar existitu den botere-sistematik sakon eta irmoena, ia perfektua baita metafisikoki. Haien ikuspuntua objektibitatearen neurri estandarra da. Haien berezitasuna unibertsaltasunaren esanahizat aurkezten da. Kontsentsuz erabiltzen dute indarra, haien aginpidea parte-hartze gisa aurkezten zaigu eta haien kontrola legitimitate gisa definitzen... Feminismoak emakumeon isiltasunaren ahotsa aldarrikatzen du, gure absentsien presentzia (Catharine MacKinnon)⁷.

Androzentrismoa munduari eta gauzei buruzko ikuspegi bat da, zeinetan, ikuspuntu teoriko batetik eta ezagutzaren ikuspuntutik, gizonezkoak baitira gauza guztien erdigunea eta neurria. Ikuspegi horrek ezkutatu eta ikusezin bihurtzen du gainerako guztia, hots, emakumeek eta maskulinitate eta nortasun ez-normatiboek gizartean egindako ekarpen guztiak. Ildo horretatik, giza esperientziaren muintzat hartzen dira gizonak eta haiei egotzitako ezaugarriak, eta emakumeak eta haiei egotzitako ezaugarriak, berriz, «beste»tzat edo «espezifikiko eta partikular»tzat⁸.


Ikuspegi androzentrikoaren arabera, gizonen esperientzia «unibertsala» da, gizateriaren erreferentzia edo errepresentazio nagusia. Ikuspegi hori egotzen zaie pertsoneri, hizkuntzari, erakundeei eta zuzenbideari. Garrantzitsua da azpimarratzea errealitatearen pertzepzio horren barruan sozializatu diren pertsona guztiei eragiten diela ikuspegi horrek, gizonak edo emakumeak direla ere.

Gure antolamendu politiko, ekonomiko eta soziala munduaren ikuspegi androzentriko horren gainean eraiki da, hau da, esperientzia unibertsal, legítimo eta objektibotzat hartu-

tako esperientzia maskulinoaren gainean. Horri jarraikiz, teoria ekonomiko neoklasikoak sinplifikatu eta estereotipatu egiten ditu emakumeen bizitza, harreman sozialak eta motibazio ekonomikoak. Emakumeak emazte eta ama gisa tratatzen dira eta lan-merkatuan familiaren beharren arabera aritzen dira, homo economicusaren eginkizuna bere gain hartzen duten senarren menpekotasun ekonomikoa duten pertsonatzat hartuta: «izaki hori [homo economicusa] arrazionala da beti, berekoia, independentea, ez du ez sentitzen ez jasaten, erabat buruaskia da, osasuntsua, ez gazteegia ez zaharregia, azal zuria du eta, nola ez, beti bete-betean dihardu merkatuan, irabazi ekonomikoaren bidez bakarrik lortutako norbera-aren ongizatearen bila»⁹.

EKONOMIA FEMINISTAK teoria ekonomikoaren isuri androzentriko handia salatzen du, eta prozesu ekonomikoak modu osagarrian behatzeko eta aztertzeke duen ezintasuna. EKONOMIA SOLIDARIOAREkin batera, homo economicusaren izaera irreal nabarmentzen du, eta hala emakumeen nola gizonen errealitatea aintzat hartzen eta aztertzen duen eta haien BEHAR PRAKTIKOEI ETA INTERES ESTRATEGIKOEI erantzuten dien ekonomia-eredua aldarrikatzen du.

ANDROZENTRISMOAREN DINARRIZKO PARTIKULAK



Rolak eta genero-estereotipoak

Genero-estereotipoak aurrez pentsatuta dauden eredu edo ideia sozial edo kultural batzuk dira, ezaugarri zehatz eta mugatu batzuk egozten dizkietenak emakumeei eta gizonei, bakoitzaren sexuaren arabera. Estereotipo horiek oztupo larria dira benetako genero-berdintasuna lortzeko eta diskriminazio-modu hori elikatzen dute (Europako Kontseilua)¹⁰.

Genero-estereotipo bat zera da: gizonek eta emakumeek dauzkaten edo eduki beharko lituzketen ezaugarri edo tasunei nahiz batzuek nahiz besteek betetzen dituzten edo bete beharko lituzketen funtzio sozialei buruzko aurreiritzi bat, gizartean oso hedatuta dagoena. Praktikan, gizonezkoen edo emakumezkoen talde sozialekoak izate hutsagatik egozten dira. Genero-estereotipo horiek pertsonak beren sexuaren arabera dituzten rolak definitzen dituzte eta, horrekin batera, gizon eta emakumeentzako helburuak eta aukera sozialak finkatzen dituzte.

Beste esamolde batzuk bezala -HETERONORMATIBITATEA, adibidez-, BINARISMO sozialetik sortutako konbentzio sozial eta kulturalen multzo bat da eta jarraibide arauemaile batzuk zehazten ditu, eta naturalizatu egiten ditu diskriminazioak eta BERTINTASUN EZA.

Estereotipo horiek egunerokoan agertzen zaizkigu komunikazio sozialaren eta publizitatearen arloan eta eragin berezia dute haurren hezkuntza- eta sozializazio-prozesuetan. Hori dela eta, berebiziko garrantzia daukate eredu sozial, kultural, politiko eta ekonomiko nagusiak erreproduzitzeko garaian. Izan ere, estereotipo eta rol horiek bereziki kaltegarriak dira, mugatu egiten baitute pertsonak beren bizitzako esparru guztietan (afektiboan, hezkuntzan, lanean, jokatzeko moduan...) nahi dutena aukeratzeko eta bizimodu bete izateko


gaitasuna. Pertsonen askatasuna eta haien nahiak eta nortasuna garatzeko eta adierazteko eskubi-dea hertsatzen dituzte, azken batean.

Arlo sozioekonomikoan, rol horiek LANAREN BANAKETA SEXUALA iraunarazten dute eta ekoizpenaren eta erreprodukzioaren esparruak bereiztea dakarte, halaber. Horrela, bada, «[rol horiek] lotura zuzena daukate zereginak emakumeen eta gizonen artean banatzeko moduarekin. Emakumeei etxeko lanekin zerikusia duten rolak egozten zaizkie, hots, etxeaz arduratzearekin eta familiako pertsonak zaintzearekin zerikusia dutenak; gizonei, berriz, esparru publikoari, lan ordainduari eta erabakiak hartzeko organoetan parte hartzeari dagozkionak»¹¹.

Fenomeno horrek lotura estua dauka gizonei eta emakumeei balio jakin batzuk egoztearekin eta balio horiek sustatzearekin. Gizonen kasuan, produktibitatea, lehiakortasuna, indibidualismoa, lidergoa...; emakumeenean, afektibitatea, elkartasuna, babesa eta zaintza... Estereotipo horien arabera zehazten da indarrean dagoen eredu sozioekonomiko KAPITALISTA ETA HETEROPATRIARKALA. Mugimendu feminista haren aurka borrokatzen da eta EKONOMIA SOLIDARIOA hari aurre egiten saiatzen da, lankidetzan, elkarrekikotasuna, birbanaketa, ekitatea eta horizontaltasun demokratikoa oinarritzat dauzkaten praktika ekonomikoen bitartez.

Binarismoa eta sexu-genero sistema

Emakume ez da jaiotzen: egin egiten da. Ezein destino biologikok, psikikok, ekonomikok ez du definitzen gizaki emeak gizartean duen irudia; zibilizazio osoak sortzen du gizonaren eta zikiratuaren tarteko emaitza hori, femeninotzat jotzen den hori (Simone de Beauvoir)¹².



Mundua arrosa eta urdina ikusten duten betaurrekoak

Gizarte baten barruan emakumeen eta gizonen arteko harreman-moldeak arautzen dituen sistema da sexu-genero sistema. Gizarteak emakumeei eta gizonei egotzitako ROLen eta eginkizunen arabera eta gizartean duten posizioaren arabera batzuentzat eta besteentzat baldintza sozial desberdinak definitzen di-

tuen botere-sistema baten barruan sortutako harremanak (mendekotasuna edo baliabide nagusien gaineko boterea) aztertzen ditu. Generoaren bidez, gizarte bakoitzak emakumeen eta gizonen berezkotzat jotzen dituen ezaugarri emozional, afektibo eta intelektualak nahiz jokamoldeak definitzen dira. Sexua, beraz,

naturak determinatzen du eta generoa, berriz, ikasi egiten da eta irakatsi, aldatu eta manipulatatu egin daiteke. Horrela, bada, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozialak – zeinak urte luzez ikasiak eta barneratuak izan baitira– azaltzen dizkigu generoak¹³.

Sexu-binarismoa konfigurazio-sistema horren emaitza da. Sistema horretan, pertsona guztiak genero jakin baten arabera –gizona edo emakumea– sozializatzen dira, jaiotzean zeukaten sexu biologikoaren arabera. Gure pentsamenduaren egitura, Mendebaldean behintzat, errealitatearen eraikuntzari zentzua ematen dioten eskema bitarretan oinarritzen da, eta eskema horien barruan oposizioz ikasten dugu gauzak zer diren eta zer ez diren. Ildo

horri jarraikiz, pentsamendu bitarrak errealitate polarizatu bat ezartzen du, zeinetan emakume izatea gizon izatearekiko oposizioz ulertzen baita edo, adibidez, arrazoiak emozioarekiko oposizioz, gaitasuna (des)gaitasunarekiko eta abar. Pentsamolde horrek ukatu eta baztertu egiten ditu finkatuta dauden kategorია dikotomiko baztertzailerekin bat ez datozen errealitateak.

Azterketa eta praktika uztartuta, EKONOMIA SOLIDARIOAK –EKONOMIA FEMINISTAREKIN batera jardunda– aukera berriak zabaltzen ditu produkzioaren eta erreproduzioaren arteko banaketa, politikaren eta ekonomiaren arteko bereizketa eta tankera horretako dikotomiak gainditzeko.

Lanaren banaketa sexuala

Lanaren banaketa sexualak gizonen eta emakumeen artean banatzen du lan ordaindua eta ordaindu gabekoa, hala bitzta pribatuan nola publikoan, tradizionalki bakoitzari egokitu zaion rolaren arabera (Europako Batzordea)¹⁴.

Gizarteak sexu bakoitzari egokitutako ROLEN arabera, gizonei eginkizun batzuk eta emakumei beste batzuk ematean datza lanaren banaketa sexuala. Praktikan, lanaren banaketa sexuala botere-harreman bat da nagusiki, gizonei egokitzen zaizkien eginkizunei balio sozial eta ikusgarritasun handiagoa ematen baitzaie emakumei egokitzen zaizkienei baino. Horrela, bada, gizonei lanaren esparru publikoa egokitu zaie eta emakumei, berriz, lanaren esparru pribatua. Erlazio hierarkiko horretan, historian zehar, giza espeziea ZAINTEKO lanak emakumeek egin dituzte nagusiki, baina lan horiek ez dira lantzat hartu izan, eta zeregin horiek soilik emakumeek egin beharrekoak zirela arautu da, haien sexuaren ondorioz. Emakumeek esparru publikoan egin dituzten beste lan asko ez dira emakumei beren sexuagatik dagokienari buruzko kontakizun historikoaren barruan jaso.

Lanaren banaketa sexualak gure bizitza espazio berezietan zatituta dagoela iradokitzen duen imajinario soziala ekarri du eta espazio horiek ikusgarritasun eta pisu sozial desberdina jasotzen dute: eginkizun eta sektore batzuk ikusgarriak dira eta beste batzuk, ikusezinak. Ikusezintasun horrek eragin handia izan du politika publikoetan, denboren kudeaketan eta gure gizarteko emakumeek eta gizonek bizitzatik espero zutenean. Edonola ere, historiak erakutsi digunez, ROL horiek aldatu egin daitezke, eta gainditu.

Lanaren banaketa sexualak berekin dakar ugalketa- eta ZAINTEA-lanak (ordainduak zein ordaindu gabeak) emakumeen esku eta produktibotzat jotzen direnak gizonezkoen esku uztea, bai eta esparru publikoan egiten diren jarduerak bereizita egotea ere. Horrek SEGREGAZIO HORIZONTAL ETA BERTIKALA eragiten du lan-esparruan, bizi garen antolamendu sozial KAPITALISTA ETA PATRIARKALAREN ondorioz.

Sexismoa, matxismoa eta mikromatxismoa

Emakumeok diskriminatuak eta bidegabe tratatuak izateaz gain, iraindu eta suntsitu ere egin gaituzte funtsean (Kate Millet)¹⁵.

Sexu biologikoari lotutako diskriminazioa sustatzen duten jarrera eta praktika guztien bilduma da sexismoa eta pentsamendu BITARRA da bere oinarrietako bat. Horrela, bada, emakumeei eta gizonei elkarren aurka baina erlazionatuta dauden kontzeptu jakin batzuk egozten zaizkie, azkenerako gure izateko, sentitzeko eta pentsatzeko moduak definitzen dituztenak, ustezko desberdintasun biologikoetatik abiatuta. ESTEREOTIPO kultural horiek indarrean jarraitzen dute oraindik: gizonen esparuari egozten zaizkio objektibo, unibertsal, arrazional, abstraktu, publiko, gogo... kontzeptuak, eta horien kontrakoak –subjektiboa, partikularra, emozionala, konkretua, pribatua, gorputza...– emakumeen munduarekin identifikatzen dira¹⁶.


Matxismoa «emakumeak nagusikeriaz tratatzeko jarrera da»¹⁷ gizonezkoen ezaugarriak emakumezkoen ginetik daudela pentsatzen delako. Horri jarraikiz, hierarkia, botere eta aginpide handiagoa aitortzen zaie maskulinitatearekin

lotutako ezaugarriei. Garrantzitsua da argitzea matxismoa ez dela gizonen jarrera bat soilik: bizi garen gizartearen ezaugarri bat da, gizonezkoen presentzia hobeto baloratu baita beti emakumeena baino.

Mikromatxismoak, bestalde, zera dira: «bai oso sotilak direlako, bai gizarteak onartzen dituelako, oharkabean pasatzen diren adierazpen, jarrera eta ekintza matxistak»¹⁸. Egintza txikiak izaten dira, isilak, ezkutukoak, naturalizatuak, baina sakon errotuta dauden esanahien unibertsio bat osatzen dute. «Hitzaren jatorriak mikro partikularekin dauka zerikusia; aurrizki horrek ia hautemanezina dena, agerikoa denaren muga dagoena, adierazten du»¹⁹. Eta larriena da guztiz barneratuta daudela gizonen eta emakumeen sozializazioan eta guztiz hautemanezinak zaizkigula. Horregatik dira hain kezkarriak. Emakumeekin zerikusia duena etengabe menpeko egoeran aurkezten duten esaren eta umore matxistaren, sinboloen eta hizkeraren bidez ematen da aditzera.

Heteronormatibitatea

Botere-harremanen multzoa da; horren bidez normaldu eta arautu da sexualtasuna gure gizartean, eta horren arabera instituzionalizatu dira harreman heterosexual idealizatuak, gizakia izateak esan nahi duenarekin parekatuz (Michael Warner)²⁰.



Heteronormatibitatearen arabera, jokamolde heterosexuala da gure kulturetan eta jokamolde sozialetan normaltzat jotzen dena. Hori, batetik. Bestetik, eta imaginario kolektibotik harago joaz, jokamolde hori betebeharrere bihurtzen da, erregimen sozial, politiko eta ekonomikoak barneratzen eta inposatzen duen heinean. Inposizio neurri handiagoan edo txikiagoan egoten da instituzionalizatuta herrialde, ideologia eta erlijio batetik bestera, eta lege, zigor, iritzi mediko, arau erlijioso eta abarren bidez gauzatzen da.

Normaltasunak eta normatibitateak jokamolde heterosexuala nahitaezkoa izatea dakar-

te, eta beste identitate eta praktika batzuk bazterrean gelditzea, eta are zigortuak izatea ere. Nahitaezko heterosexualitateak BINARISMO sexualean du jatorria. Haren arabera, sexu biologikoak, genero-nortasunak eta praktika sexualak bat etorri behar dute, eta pentsamolde horrek diskriminatu egiten ditu emakume lesbianak, gizon gayak, pertsona transexual eta transgeneroak...

Heteronormatibitate hori esparru ekonomikoan aurkitzen dugu, halaber, esparru horrek baloratu eta saritu egiten baititu produktibitatearekin, lehiarekin, individualismoarekin eta arrakasta sozialarekin lotu ohi

diren jokamolde maskulino eta heterosexuak. Horrela, bada, balio eta praktika kapitalistek arau heterosexuala indartzen dutela esan dezakegu. Era berean, zera azpimarra dezakegu: «heteroarauak ZAINTZARI lotuta ez dauden gizonezko langile askeak eta emakumezko langile immolatuak bermatzen ditu. Langileok familia nuklearra bermatzen dute, zeinetan kapital-bizitza gatazka subsumitzen baita (ikus KAPITALISMO HETEROPATRIARKALA). Ezarrita dauden sexu-harremanetatik harago ere dauka eragina heteroarauak. Eta makineria guztiak

funtzionatuko badu, arau horren beharra daukan egitura ekonomikoa daukagu»²¹.

Ekonomia kritiko eta eraldatzaileak –ekonomia sozial eta solidarioak, adibidez– bat datoz EKONOMIA FEMINISTAREKIN, kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka kapitalismoaren kritikaren funtsezko alderditzat hartzeko garaian, bai eta ekonomiaren alorrean, hala esparru pribatuan nola publikoan, aniztasuna –kasu honetan, sexu-jokamoldearena– defendatzeko garaian ere.

Patriarkatua, heteropatriarkatua

Gizonek emakumeen eta familiako neska-mutilen gainean duten nagusitasunaren adierazpena eta instituzionalizazioa [da patriarkatua]; nagusitasun hori gizarte osora hedatu da. Horren arabera, gizonek gizarteko erakunde garrantzitsu guztietan dute boterea, eta emakumeei haietan sartzea galarazi zaie, baina ez du esan nahi emakumeek batere botererik, eskubiderik edo baliabiderik ez izatea (Gerda Lerner)²².

Patriarkatu hitzak «aiten gobernua» esan nahi du, bere adiera literalean. Emakumeen ustezko gutxiagotasun biologikoa oinarritzat hartuta, haien menderakuntza justifikatzen duen sistema bat da. Familian du jatorri historikoa, aitak baitziren familiako buruak, eta ordena sozial osora hedatu zen. Horrez gain, bada gizarte politiko eta zibileko instituzio-multzo bat ordena sozial, ekonomiko, kultural, erlijioso eta politikoaren bidez aditzera ematen den kontsentsua mantentzeko eta indartzeko artikulatzen dena. Ordena horren arabera, emakumeek, kategoria sozial gisa, gizonen mende egon behar dute, nahiz eta gerta daitekeen emakume batek edo batzuek boterea izatea, edo emakume guztiek nolabaiteko boterea izatea, amek seme-alabengan dutena, esate baterako.

Emakumeak eta genero-agindu maskulino hegemonikoari muzin egiten dioten pertsonak zapaltzen dituen antolamendu eta kontrol sozialari egiten dio erreferentzia heteropatriarkatuak. Sistema horrek egitura arau-emaile batzuk finkatzen ditu (arau, lege eta xedapen batzuk) eta egitura horiek erdigunean jartzen dituzte sexu-harreman heterosexualak, eta

giza espeziea hazteko eta bizikide dituzten gizonei zerbitzatzeko roletan jartzen dituzte emakumeak. Homosexualitatea eta lesbianismoa onartzen den kasuetan ere, erdigunean dagoenez gero indarra eta aginpidea daukan araua heterosexualitatea da. Sistema heteropatriarkalaren zutabeetako bat kapitalismo industrialetik sortutako eta hark bultzatutako familia-eredu nuklearra izan da²³.

Nahitaezko heterosexualitatearen instituzioa beharrezkoa da patriarkatua iraunarazteko, emakumeen eta gizonen arteko bizikidetzaren nahitaezko izaera adierazten baitu, kopuru aldetik orekatuta dauden maskulinitate/feminitate-tasen arabera. Sexualitateari ezartzen zaizkion mugak eta ezkontza heterosexuala ESKULANA kontrolatzeko tresnak diren aldetik, funtsezko elementuak dira patriarkatuarentzat, eta haien gainean eraikitzen dira kapitalismoaren oinarriak²⁴.

Heteropatriarkatuari buruzko ikerketa feministek eta eraikuntza historiko eta soziala delako frogek agerian uzten dute posible dela sistema hori beste eredu sozial bidezko eta berdinzale batekin aldatzea.

Botere-harremanak

Gure posizioa eta posizio horretatik eratzten diren erlazioak taxutzen dituzte zeharkatzen gaituzten faktore ugariak: generoak, adinak, klaseak, ekoizpen-erlazioen barruan dugun posizioak, gure jatorriak, gure hizkuntzak, lurraldearekin ditugun loturak, gure historia eta ibilbideak, gure ingurune zabalak (Natalia Navarro)²⁵.

Boterea teoria feministaren funtsezko kontzeptu bat izan da. Izan ere, feminismoaren bigarren olatuarentzat, gizarte justuago bat eraikitzeko ezinbestekoa zen «emakumeok jasan dugun subordinazio sistematikoa azaltzea eta denboran zehar iraunarazi duten mekanismoen eta hura eraldatzeko moduen berri ematea»²⁶.

Gizarteko sektore desberdinek baliabide materialen, giza baliabideen eta baliabide intelektual eta ekonomikoen gainean daukaten kontrol-maila da boterea. Dena den, ez da kontzeptu estatikoa, boterea erlazioetan oinarritutako zerbait dinamikoa baita: gizabanakoen eta gizakien arteko erlazio sozial, ekonomiko eta politikoetan gauzatzen da eta modu desorekatuan banatuta dago.

Banaketa sozial horien bidez eusten zaie eta iraunarazten dira botere-maila desberdinak, bai eta familia, erlijioa, hezkuntza, hedabideak, legea eta antzeko instituzioen bidez ere. Botere hori gauzatzeko etxekotze-teknikak, menderakuntza-prozedurak eta mendekotasuna lortzeko sistemak erabiltzen dira.

Boterea era askotako harremanez osatutako sare bat dela ulertuta, emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanak genero-identitatearen (sozializazio desberdina, LANAREN BANAKETA SEXUALA, ibilbide sexual desberdinak...) sorkuntza sozialaren eta menderakuntza- eta mendekotasun-praktiken

bidez taxutzen dira. Praktika horiek gorputzetan txertatzen dira edo barneratu egiten dira hainbat teknikaren bidez, eta INDARKERIA sinbolikoa, egiturazkoa eta erlazonala erabiltzen da horretarako²⁷.

EKONOMIA SOLIDARIOAK, harreman horizontala-goak ezartzeko eta pertsonen AHALDUNTZEA sustatzeko bultzatzen dituen ekimenetan, arreta jarri behar du antolakundeen barruan jokoan sartzen diren botereetan ere. Horrela, bada, botere ikusgarria delakoak erabakiak hartzeko prozesu ikusgarriari egiten die erreferentzia, eta hierarkiarekin, arau formalekin eta erabakiak hartzeko prozedurekin identifikatzen da. Ezkutuko boterea, bestalde, garrantzitsutzat jotzen denaren gainean kontrola edukitzeko ahalmena da, baina agerikoa gertatu gabe eta ezarritakoez bestelako kanalak erabiliz. Botere ikusezina, azkenik, esanahiak bihurritzeko gaitasuna da, beste pertsona batzuek esanahi horiek barneratzen dituztenean, pertsona horiek dinamika sozialei buruz garatzen dituzten ikuspegi eta interpretazioak baldintzatzen dituztelarik esanahi horiek, parte hartzeko oztopo psikologiko eta ideologikoak sortzearekin batera. Eragin horrek munduan nahiz gure antolakundeetan daukagun lekua zedarrizten du eta kanpotik gauzatu daiteke, nahiz barnetik, barneratutako eta naturalizatutako arau, balio eta sinesmenen bidez.

Berdintasun eza

Pareko eskubideak edo aukerak ez edukitzeko kondizioa da berdintasun eza (Federación Catalana de Organizaciones por la Justicia Global)²⁸.

Genero-desberdintasuna egiturazkoa da eta arlo ekonomiko, sozial eta politikoan du eragina, era asko eta askotara. Talde batek (gizonek) beste baten gainean pribilegio batzuk dauzkanean gertatzen den fenomeno da.

ZAINTZAREN alorrean eta denboraren erabileraren alorrean dauden desberdintasunen ondorioz, emakumeek jasaten duten bidegabekeria sakona nabarmendu nahi dugu hemen. Desberdintasun horien eraginez, ZAINTZA-lanari lotutako zama astuna oso gutxi banatzen da eta lan-merkatuan eduki ditzakegun aukerak mugatzen dituen zerbait bezala ikusten da, merkatu horrek sektore feminizatu eta gaizki ordainduetara zokoratzen baititu emakumeak. Horrek SEGREGAZIO BERTIKAL ETA HORIZONTALA eta soldata-diskriminazioa jasatera kondenatzen ditu emakumeak.

Antolakundeen alorrean, genero-desberdintasun horiek «portaera pertsonalak eta LANeko praktikak gidatzen dituzten sinesmen ukiezi-netan» oinarritzen dira. Eman dezake sinesmen horiek hutsalak direla eta ez dutela inolako garrantzirik baina, egia esan, ondorio desberdinak izaten dituzte emakumeen eta gizonen kasuan»²⁹.

EKONOMIA SOLIDARIOAK egungo errealitatea salatzen du: errealitate horretan, «nahiz eta biztanle-taldeen arteko desberdintasunak handiak izan, gizarteak (...) bertako ugalketarako baldintzak ziurtatzea» baitauka, sistema batek hazkunde ekonomikoa izan dezake, «nahiz eta biztanleen ehuneko handia txiroa izan edo desberdintasun sozial ikaragarriak egon», eta «krisi ekologikoak ere lotura estua dauka desberdintasunen, txirotasunaren nahiz miseriaren arazo larriekin, eta, gaur egun, ingurumenaren suntsipenaren beraren ondorioz sortutako xtirotasun-modu berriekin ere bai»³⁰.

EKONOMIA SOLIDARIOAREN praktiken katalogoaren bidez, aurre egin nahi zaie besteak beste lan-merkatuan aurkitzen ditugun desorekei, diruak eraikitzen dituen BOTERE-HARREMANEi eta jabetza pribatuaren bidez sortzen diren desberdintasun etnikoei, besteak beste. Egitura demokratiko eta bidezkoagoak eraikitzearen eta beste EKONOMIA-molde kritiko batzuk (hala nola FEMINISTA edo EKOLOGIKOA) garatzearen aldeko apustuak, LANA, aberastasuna, kontsumoa, ongizatea eta tankerako kontzeptuen esanahia aldatzea helburu duenak, areagotu egiten du ekonomia-molde horren eraldaketarako potentziala.

Indarkeria matxistak, indarkeria ekonomikoa

Emakumeei zuzentzen zaien indarkeria, zeinak gizonak emakumeen gainean duten boterean oinarritutako sistema baten barruan gertatzen den diskriminazioa eta desberdintasun-egoera adierazten baitu. Indarkeria hori bitarteko fisiko, ekonomiko edo psikologikoen bidez gauzatzen da (besteak beste, mehatxuen, beldurraraztearen eta hertsapenaren bidez). Bitarteko horiek kalte edo sufrimendu fisiko, sexual edo psikologikoa eragin dezakete, hala esparru publikoan nola pribatuan (Mugarik Gabe)³¹.

Indarkeria matxista fenomeno konplexua da, eta forma asko hartzen ditu: indarkeria fisikoa, tratu txarrak, indarkeria ekonomikoa, jazarpena, bestea barregarri uztea... Emakumeen aurkako indarkeriaz hitz egin ohi da ikusarazteko emakume izate hutsagatik jasanarazten zaiela indarkeria hori emakumeei, eta HETEROARAUarekin bat ez datozen beste gorputz batzuek ere jasaten dute. Tankera horretako indarkeriaren helburua da emakumeak eta arauarekin bat ez datozen beste gorputz horiek kontrolatzea eta menderatzea, eta sistema HETEROPATRIARKALAK status quo delakoa, BOTERE-HARREMANAK eta emakumeen eta gizonen arteko BERDINTASUN EZA iraunarazteko erabiltzen dituen tresnetako bat da.

Arazo politiko bat da, beraz, giza eskubideen urraketa bat, eta menderakuntza PATRIARKALAREN estrategia historikoaren funtsezko osagaia. Alde horretatik, genero-desberdintasunak gauzatzen eta iraunarazten dituzten egituretako bat dugu sistema kapitalista, DESBERDINTASUN horiez elikatzen eta haien gainean bermatzen baita. Binomio HETEROPATRIARKALA sendotzen du eta indarkeria matxistak ahalbidetzen ditu (zuzenean nahiz zeharka). «Hain zuzen ere,

bere kontzepzioetik eta planteamendutik egiten du, kapitala-bitzitza gatazkaren bitartez (...), hainbat mekanismo eta tresna erabiliz (hala nola kontsumoa, bertikaltasuna, kompetentzia eta bazterketa)»³².

Zentzu horretan, dirua beste modu batera erabiltzea eta harekin beste modu batera erlazionatzea proposatzen du EKONOMIA SOLIDARIOAK, kapitalaren kulturak dituenaz bestelako arrazionaltasun eta botere-logika batzuk oinarritzat hartuz eta erreskatatuz. Finantza etikoak eraldaketa lortzeko bitarteko bat dira: kapitalismoak gizartean sortzen duen erlazio kritiko eta toxikoari aurre egiten diote, horixe baita hala esparru pribatuan nola publikoan hedatuen da goen biolentziaren kausa garrantzitsuenetako bat, pertsonen askatasuna eman eta askatasun hori egituratzen baitu diruak. Dirua ez da askatasun-modu bat, baina askatasuna ematen du. Era berean, ekoizpenaren eta kontsumoaren hazkundean atzera egiteko proposamenen bidez, ekonomia solidarioak kontsumismo kapitalistari aurre egiteko moduak proposatzen ditu, eredu ekonomiko horrek DESBERDINTASUNAK betikotzen eta gizarteak estratifikatzen dituen aldetik.

Zaintza(ren krisia eta kate globalak)

Ordaindu gabeko zaintza-lana zera da: beste inor zaintzea, trukean inolako ordain ekonomikorik jaso gabe. Ordaindu gabeko zaintza-lana lana dela kontsideratzen da eta, beraz, lan-munduaren funtsezko dimentsio bat da. Ordaindutako zaintza-lana zaintzaren alorreko emakumezko eta gizonezko langileek egiten dute, ordain edo onura baten truke, eta era askotako zerbitzu pertsonalak biltzen ditu (Lanaren Nazioarteko Erakundea)³⁴.

LANAREN BANAKETA SEXUALAREN kritika eta bizitzaren erreproduktioarako beharrezkoak diren LANen errekonozimendu eta balorizazioa oso eztabaidagai garrantzitsuak izan dira bai EKONOMIA FEMINISTAREN bai gizarte-zientzien alorreko beste jakintza-eremu batzuen barruan, eta ekarpen historiko garrantzitsuak sortu dira hortik³⁵. Ikuspegi horretatik begiratuta, zaintzak adiera plurala dauka, hau da, bizitza garatzeko beharrezko baldintzei eusteko beharrezkoak diren LANei egiten die erreferentzia, pluralean. LAN horiek lotura estua dute gure existentziaren beraren ELKARMEDEKOTASUNAREKIN. Izan ere, gure bizitzako etapa desberdinetan zehar, intentsitate eta espezia-

lizazio handiago edo txikiagoarekin, zaintza beharko dugu, lan-alorreko, gizarte-alorreko... beste jarduera batzuk garatu ahal izateko eta pertsonen ongizaterako ezinbestekoak diren beste jarduera batzuekin batera.

Tankera horretako LANAK ikusezinak izaten dira, esparru pribatuan gordeta gelditzen baitira, eta emakumeek egiten dituzte gehien-gehienetan, inolako ordainik jaso gabe. Ezaugarri horien ondorioz, ekonomia nazional gehienek ez dituzte lan horiek aintzakotzat hartzen. Ordaintzen diren kasuetan, ezkutuko ekonomian edo prekaritate handiko baldintzetan egiten dira normalean. Horren adierazgarri dugu etxeko langileen kasua, esate baterako.

Testuinguru horretan, «zaintzaren krisi» gero eta nabarmenagoa aipatu behar dugu: Krisi horrek zaintzen zama handitu egin dela erakusten digu, batez ere, gizarte zaharkituetan. Emakumeak zama horri aurre egiten ari dira, gizarteak zaintza beharretaz arduratzerara bultzatzen dituelako, sektore publikoak ez duelako ganorazko erantzunik ematen zaintzan, kalitatezkoa eta unibertsala eskaintzeko. Azkenik, esparru pribatuan gizonek uko egiten diotelako zaintza-lanez arduratzeari. Zaintza-erlazio asimetrikoak historikoak badira ere, beharrezkoak diren zaintzen kopuruan eta ezaugarrietan dago berritasuna gaur egun, bai eta zaintza ematen eta jasotzen dutenen arteko erlazioan ere. Horrek guztiak klase sozial berri bat sortzea ekarri du, M. Ángeles Duráñen esanetan: *cuidatoriado*³⁶ edo zaintzaileen klasea.

Azkenik, zaintzaz ari garenean, *zaintza-kate globalak* direlakoak aipatu behar ditugu: «biziaren iraunkortasuna bermatzeko prozesuak egunerokoa ziurtatzeko helburuz, etxe/familia batzuk beste batzuekin uztartzen dituen prozesua da, zeinaren bidez zaintza transferitzen baita etxe/familia batzuetatik beste batzuetara. Lotura horiek nazioz gairikoa dira; herrialde bakoitzaren mugetatik harago, etxe eta familia batzuen eguneroko errealitatea eta itxaropenak beste etxe/familia batzuetan gertatzen denaren mende baitaude». Fenomeno horri jarraikiz, emakume migratzaileak beste gizarte batzuetara joaten dira zaintza-lanak egitera eta beren jatorrizko gizarteetan beste norbaitek arduratu behar du zaintza horiez. Horrek bi krisi uzten ditu agerian: erdialdeko herrialdeetan gertatzen ari den zaintzaren krisia eta periferiako herrialdeak jasaten ari diren erreprodukzio sozialaren krisia.

IKUSGAIA

Produktiboa

Publikoa

Kalea

Merkatua

komunitatea

Etxea

Pribatua

Erreproduktiboa

IKUSEZINA



Zaintzaren etika (atzerakoia)

Zaindu hitzak «Norbaiten edo zerbaiten arta hartu, kalterik edo ezbeharrik gerta ez dakion» esan nahi du, Euskaltzaindiaren Hiztegiaren arabera³⁸.

Eta horixe egiten dugu pertsonok, gure arre-
ta edo laguntza behar dutela iruditzen zaigun
beste pertsona batzuekin erlazionatzen ga-
renean. Dena den, kontzeptu konplexua da
zaintza, lotura estua baitauka LANEN BANAKETA
SEXUALarekin ere, eta naturalizatu egin dugu
jardun hori ia soilik emakumeek egitea. Ho-
rrela, bada, gizakien zaintza-eremua emaku-
meekin erlazionatu izan da historian zehar,
emakumeek zaintzeko sena balute bezala,
amatasunarekin eta emakumearen patua-
rekin duten erlazio estua medio. Ondorioz,
zaintzeko erantzukizuna emakumeen esku gel-
ditu izan da, haien bizitzako dimentsio guztietara
dakartzan ondorioekin. Gizonak, berriz, dohain
horretatik kanpo gelditu dira, antza denez ez
baitzuten loturarik pertsonok jaiotzen garenetik
hiltzen garen arte behar ditugun afektuekin eta
zaintzarekin.

Carol Gilligan psikologo estatubatuarrek
1980ko hamarkadan egindako ekarpenak har-
tu ohi dira zaintzaren etikari buruzko ezta-
baidaren jatorritzat. Mutilen aldean neskek
garapen moraleko maila altuetara iristeko
zeukaten gaitasun handiagoaren inguruko
gogoetetatik abiatu zen Gilligan. Bere ingu-
runeko psikologo batzuek auzitan jarri zuten
gaitasun hori. Gilliganek gaia ikertu, eta on-

dorioztatu zuen mutilek eta neskek garapen
moraleko eredu desberdinak dauzkatela: nes-
ken garapen moralari buruzko eredu berri bat
finkatu zuen orduan, zaintzaren edo erantzuk-
izunaren etika delakoa, eta horri kontrajarri-
ta, eskubideen edo justiziaren etika izeneko
eredu maskulinoa.

Gilliganen esanetan, zaintzaren etika esparru
pribatuan garatzen da eta emakumeen esku
dago. Ikuspegi horren arabera, gizonak es-
kubideak eta arauak azpimarratzen dituzte
normalean eta emakumeek, aldiz, arazo mo-
ralak erlazioekin zerikusia duten arazo gisa
ulertzen dituzte, eta hor sartzen dira erantzuk-
izuna eta zaintza. Gilliganen ekarpenek era-
gin handia izan dute eta ekarpenoi esker beste
balio eta garrantzi bat hartu dute tradizionalki
emakumei egokitu izan zaizkien ezauga-
rriek. Arreta esparru pribatuan jarriz, esparru
publikoaren eta pribatuaren artean sortzen di-
ren tirabirak aztertzeo aukera ematen digu
zaintzaren etikak. Ikuspegi horrek aintzakotzat
hartzen ditu gizakien zaugarritasuna, gure
emozioak, ELKARMENDEKOTASUNA eta elkarre-
kiko lotura, beste kontsiderazio interesgarri
batzuekin batera. Bizitzako beharren aurrean
gizonak erakutsi ohi duten atxikimendurik

ezari eta erantzukizunik ezari buruzko gogoeta-prozesua izan zen, beraz.

Gogoeta horren abiapuntua izan zen ea alde-rik ote dagoen gizonen eta emakumeen arazoibide moralen artean, genero-eraikuntzen ondorioz gizonen indibidualtasuna eta independentzia eskatzen baitzaie eta emakumeei, aldiz, besteak zaintzeko betebeharra inposatzen baitzaie, eta gutxi-gutxitan baino ez dituzte gizabanakotzat hartzen. Gogoeta horrek agerian utzi zituen justiziaren etikaren ezau-garriak: beste pertsonen eskubide formalen errespetua, inpartzialtasunaren garrantzia eta bestea epaitzea, haren berezitasunak aintzakotzat hartu gabe. Etika horretan, besteekiko erantzukizuna ekintzarako muga gisa ikusten da, erasorako oztopo gisa, bizikidetzarako gutxieneko arau batzuk adosten saiatzeko baita, baina gauzak onak edo txarrak diren esan gabe, erabakiak araei jarraikiz hartu ote diren axola baitu bakarrik.

Horren aurrean, emakumeek aplikatu ohi duten zaintzaren etika dugu: eredu horrek aintzakotzat hartzen ditu kasuan kasuko zirkunstantzia pertsonalak ezer epaitzeko garaian. Besteekiko erantzukizunean oinarritzen da. Ez-egitea pentsaezina da etika horretan. Norbaitek behar duenean ezer ez egitea huts

edo hobentzat jotzen da. Etika horrentzat, mundua harreman-sare bat da eta axola duena ez da formalismoa, erabaki beharreko gaien funtsa baizik. Azken batean, erantzukizuna da zaintzaren etikaren funtsezko kontzeptua. Erantzukizunaren logika hori aplikatuz gero, trukea ez da doi-doi, bakoitzak behar duenaren araberakoa baizik.

ERANTZUNKIDETASUNA beharrezkoa da gizonen eta emakumeen artean, eta alor guztietan: familian, lagunekin, maitasunean, politikan eta harreman sozialetan. Feminismoak zaintzaren etika defendatzen du, baina ez emakumeentzat bakarrik. Unibertsala izan behar du. **INDARKE-RI**Aren aurkako antidotoa da, gainera: zaila da norberak zaindu duena suntsitzea³⁹.

Zaintzaren etika atzerakoia, bestalde, emakumeei emakume izateagatik inposatzen zaizkien betebeharretan oinarritzen da eta helburu bakarra dauka: emakumeek lehenetasuna eman diezaiotela inguruan dauzkaten gainerako pertsonak zaintzeari, alde batera utzita beren zaintza eta beren lehenetasun eta lehenespertsonalak. Alegia, besteen ongizatearen menpe dagoen ni bat eraikitzeko inposaketa soziala jasaten dute, azken-azkenerako utzi dezaten beren ongizate pertsonala.

Kapitalismo heteropatriarkala

Buru heterosexualarentzat ezinezkoa da kultura edo gizarterik irudikatzea, zeinetan heterosexualitateak ez dituen arautzen ez soilik giza harremanak baizik eta baita kontzeptuen sorkuntza bera ere, nahiz eta kontzeptuok gizakion psikeari ihes egin (Karina Vergara)⁴⁰.

Kapitalismoa gizarte-antolakuntza modu bat da, etekin ekonomikoa sortzen duten merkataritza-harremanak erdigunean jartzen dituen kapitalaren jabeen eta haien ordezkarien mesedetan.

Ekoizpen-bitartekoen jabetza pribatua da sistema horren ezaugarri nagusia. Kapitalen jabetza pertsona gutxi batzuegan kontzentratzen da (klase kapitalista deritzona osatzen dutenengan) eta, haien aurrean, gizartearen gehiengo dago, bizibidea ateratzeko esplotazio-maila desberdinak dakartzan soldata-harreman batzuen mende (langile-klasea). Merkatua da sistema horretako instituzio nagusia, eta estatua kapitalaren jabe nagusien (eta haien ordezkarien) interesen menpe dago.

Sistema horretan, familia-harremanak ekonomiatik kanpokotzat jotzen dira (ez dute merkataritzako baliorik sortzen) eta, hortaz, kontsumitzailetzat hartzen dira, eta ez ondasun eta zerbitzuen ekoizletzat, funtsezko eginkizuna izan arren gizakiaren bizitzaren erreprodukzioan eta bizitzari eusten dioten harreman sozialetan.

Normalean, ekoizpen-unitate independente ez-kapitalista txikiak (nekazari txikiak, artisauak...) beren ekoizpen-bitartekoen jabe direla pentsatzen da eta, behar dituzten lehengaiak merkatuan eskuratzen badituzte ere, harreman kapitalistekiko desberdintasun nagusia da «beren produktuak saltzetik lortutakoa beren

jabetzakoa dela, beren LAN pertsonal edo kolektiboaren emaitza baita»⁴¹.

Kapitalismoak, berriz, kapital handiarentzat gainbalioa sortzea du helburu eta horretarako kapital bihurtu nahi ditu hala dirua nola salgaiak. Prozesu horrek kapitala-LANA gatazka pizten du, kapital-metaketa gizakiek egindako LANaren fruituaren puska bat usurpatzean oinarritzen baita. Usurpatzen den puska hori ordaindu beharrean bereganatu egiten du kapitalistak, Marxek kapitalismoaren berezko legeez egindako azterketa sakonean ederki azaldu zuen moduan.

Kapitalaren erreprodukzioari buruzko azterketa feministek zabaldu egin dute metaketa-prozesu horien gaineko ikuspegia. Horrela, bada, kapitala gatazka batean sartzen da hala langileekin nola bizitzari eusten dioten oinarri materialekin, eta eguneroko erreprodukzioarako beharrezkoak diren denborekin. Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka horretan jokoan dagoena ez da soilik gizakiok egindako LANaren puska baten bereganatze larria (gainbalioa), baizik eta gehiengo sozialaren bizitzak berak ere, oro har. Kapitalismoak ez ditu kontuan hartzen gizakion nahiz planetaren bizi-baldintzen aurretik etekin ekonomikoari lehentasuna emateak dakartzan ondorio kaltegarriak, pentsatzen baitu ez duela erantzukizunik bizitzarako beharrezkoak diren LAN guztien bidez (etxeko lanaren, ZAINZA-lanaren eta komunitateko elkarlaguntzaren bidez) sor-

tutako balioaren gainean, ez eta biosferaren ekarpenen gainean ere, nahiz eta bi-biek guztiz baldintzatu egungo kapitalismoak larri mehatxatutako bizi-kalitatearen oinarriak. Hori ikusita, EKONOMIA SOLIDARIOAK, EKONOMIA FEMINISTAK eta EKONOMIA EKOLOGIKOAK hainbat gogoeta egin dituzte hizpide dugun gatazka gainditzeko moduen inguruan, munduko biztanle guztiei bizimodu duina bermatuko dieten baldintzak lortzeko oinarriak jartzeko asmoz.

Kapitalismoa mundu osora hedatuz joan da azken mendeetan eta gizarte-antolakuntza patriarkala instituzionalizatuta –hau da, egitura politiko, ekonomiko eta sozialetan txertatutazegoen lurraldeetan errotu da. Egitura horiek balio handiagoa ematen diete gizonen ezaugarriei emakumeenei baino eta horren ondorioz LANEN BANAKETA SEXUAL hierarkizatu bat ezarri da: gizonak dira erabakiak hartzen dituztenak eta boterea daukatenak, eta emakumeen gorputzek men egin behar diete gizonen aginduei bizitzako dimentsio askotan. Horrek guztiak menderakuntza-harremanek berezkoa duten INDARKERIA dakar berekin.

Horrenbestez, kapitalismoak bera sortu baino askoz lehenagotik zetozen maskulinitateari eta feminitateari buruzko ideia hierarkiko eta zapaltzaileak eta BOTERE-HARREMANAK bereganatu eta berrantolatatu zituen. Alde horretatik, elkar sustatzen duten egitura HETEROPATRIARKA-Letan txertatzen da kapitalismoa gaur egun. HETERONORMATIBITATEA sistema kapitalista pa-

triarkalaren erreproduzio eta funtzionamenduari onuragarria zaiola esan dezakegu, beraz. Milagros Rivera Garretasek azpimarratzen duenez, «kontratu sexuala eta derrigorrezko heterosexualitatea funtsezko egiturak dira patriarkatuak iraun dezan, eta erabat arautu eta kontrolatu dute emakumeen bizitza»⁴².

EKONOMIA SOLIDARIOAK proposatzen duen ildotik, gizarte kooperatibo ez-heteropatriarkal eta ez-kapitalistetarako trantsizioan, inspirazio-iturritzat har dezakegu Foro de Vida Independiente y Diversidad delakoak egungo sistema kapitalistak sortzen duen heriotzaren etikari buruz dioena:

Gure aro biologikoan bizi beharko dugu den-denok, elikatzeko, janzteko eta besteak nahiz geure burua zaintzeko lanak partekatuz. Planetak ezin du orain arteko erritmo biziarekin jarraitu, giza balibiderik eta natur balibiderik gehien kontrolatzen duen gizakirik bizkorrenaren atzetik korrika. Harreman pertsonaletarako, pentsatzeko, gogoeta egiteko astirik ez daukan gizakiaren atzetik. Denborari aurre egiten dioten halako pertsonen (gehienak gizonak, baina baita emakume batzuk ere) zuzentzen dituzte gobernuak, indar armatuak, sozietate anonimo handiak eta zientzia-erakundeak. Haien etika lasterketaren etika da: denboraren aurka, besteen aurka, bizitzaren beraren aurka. Heriotzaren etika da: hilkortasunaren aurka borrokatzen da, baina hildakoak uzten ditu bere bidean”⁴³.

Genero-arrakalak

Aldagai baten kategorian gizonen eta emakumeen tasen artean dagoen aldea. Emakumeen tasari gizonen dagokiena kenduta kalkulatzen da. Horrela, arrakala zenbat eta txikiagoa, orduan eta gertuago izango dugu berdintasuna (Andaluziako Emakumeen Institutua)⁴⁴.

Genero-arrakalak emakumeen eta gizonen artean dauden DESBERDINTASUNAK islatzen dituzte, baliabide ekonomiko, sozial, kultural eta politikoak eskuratzeko eta kontrolatzeko aukerei dagokienez, besteak beste. Alde horretatik, asko dira eta era askotakoak DESBERDINTASUN horiek neurtzen dituzten adierazleak, baina genero-arrakala terminoa lan-merkatuko hainbat arlotan (jarduera-tasan, lanaldi-motan edo soldatan) emakumeen eta gizonen artean dauden desberdintasunez jarduteko erabili izan da.

Beraz, datuek erakusten digutenez, lan-merkatuko zenbait parametrari dagokionez azken hamarkadetan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak dezente murriztu diren arren⁴⁵, egoera oraindik ez da parekoa, inondik inora. Izan ere, «oraindik agerikoak dira soldata-desberdintasunak, eta, denboran izaten ari diren bilakaera aintzat hartuta, ez dirudi berehalakoan murriztuko direnik»⁴⁶.

Lanaren Nazioarteko Erakundearen eta nazioarteko beste erakunde batzuen arabera, hauxe da soldata-arrakalaren definiziorik ohikoena:

$$\text{Soldata-arrakala} = 1 - \frac{\text{Emakumeen batez besteko soldata}}{\text{Gizonen batez besteko soldata}}$$

0,2ko arrakalak (hots, % 20koak) adierazten du gizonen, batez beste, emakumeek baino %

20 gehiago irabazten dutela. Edonola ere, bi dira soldatak osatzen dituzten faktoreak: lan egindako ordu-kopurua eta lan egindako denbora-unitate bakoitzari dagokion soldata (soldata/ordua). Horrela, bada, hileko edo urteko soldata-arrakalak bi adierazleri zor zaizkie: lan egindako ordu-kopuruan dagoen aldeari eta orduko soldatan dagoenari. Biak aztertzea komeni da, beraz.

Bestalde, denboraren erabilerari buruzko inkesta eta ikerketak asko ugaritu dira aspaldi honetan, eta horri esker informazio fidagarria daukagu pertsonen, gizarteko talde desberdinen eta gizarte osoaren bizi-ohiturei buruz. Jarduera ekonomikoa neurtzeko erabiltzen diren metodo eta tresna tradizionalak ez zuten aukerarik ematen LAN-merkatuan gertatzen dena esparru pribatuarekin erlazionatzeko, eta horregatik hasi ziren beste tresna eta metodo horiek erabiltzen. Lan-alorreko genero-arrakalari buruzko azterketak denboraren erabilerari buruzko informazioarekin osatuta, jarduera sozioekonomikoaren azterketa sakinago eta integralagoa egin dezakegu.

REAS Euskadin egiten dugun EKONOMIA SOLIDARIOAREN Auditoria Sozialaren bidez, beste arrakala batzuk identifikatu ditzakegu, hala nola ardura politikoetara eta erabakiak hartzeko arduretara iristeko aukera, kudeaketa-planak eta aurrekontuak zehazteko eta onartzeko garaian parte hartzeko aukera...

Laneko segregazio horizontal eta bertikala

Lan-merkatuko segregazioak gizonak eta emakumeek lanbide desberdinetan eta laneko eskala desberdinetan daukaten ordezkapenari begiratzen dio. Eta gizonak eta emakumeek sektore desberdinetan lan egiten dugula eta ardura desberdinak betetzen ditugula erakusten digu⁴⁸.

Lan-merkatuaren egiturak erakusten digunez, emakumeak zerbitzuen sektoreko jardueretan pilatzen dira sistematikoki eta, horren barruan, aldi baterako lanetan, lanaldi partzialetan eta soldata eta errekonozimendu apalagoa duten lanetan. Laneko segregazioa bi modutara agertzen da, eta horizontala edo bertikala izan daiteke.

Segregazio horizontala daukagunean, emakumeak eta gizonak modu desberdinean banatzen dira jarduera-adar eta -sektore bakoitzean, batzuk maskulinitzat jotzen baitira eta beste batzuk, femeninotzat. Horrela, bada, LANAREN BANAKETA SEXUALAREN arabera femeninoak diren eginkizunekin zerikusia

duten jardueretan pilatzen dira emakumeak nagusiki, hau da, jarduera gutxi batzuetan eta lanbide zehatz batzuetan, gehienak ere zerbitzuen alorrekoak. Gizonak, berriz, gainerako jarduera guztietan aritzen dira.

Segregazio bertikalaren ondorioz, gizonak eta emakumeek banaketa desorekatua daukate eskala hierarkikoan: emakumeen lanpostu gehienak beheko eskaletan kontzentratzen dira. Segregazio bertikalak BEIRAZKO SABAIA eta ZORU ITSASKORRA dakartza berekin, emakumeak eta gizonak bereizi egiten baitituzte LAN-prozesu, sail, lanpostu eta kalifikazioen arabera.

Beirazko sabaia

Ekonomialari feministek gure ezagutza zabaldu dute eta errealitate soziala interpretatzeko tresna berriak eskaini dizkigun berreraikuntza teorikoa bultzatu dute ekonomiaren alorrean. Horrekin batera, desmitifikatu egin dute –latina erabiltzen zenean jendea kikilduta gelditzen zen moduan– diskurtso politikora etengabe jauzi egiten duen hizkera teknikoa. Eta hitz eta esamolde berriak sortu dituzte, hala nola beirazko sabaia eta pobreziaren feminizazioa. Hitz horiek jendearen irudimenean iltzatu eta erabilera arruntekoak bihurtu dira (Silvia Federici)⁴⁹.

Beirazko sabaia⁵⁰ esaten zaio emakumeek lan-munduan aurkitzen duten gainazal ikusezinari. Oso zaila da gainazal hori zeharkatzea eta aurrera egiten jarraitzea galarazten die emakumeei. Ikusezina dela diogu, ez dagoelako emakumeei muga hori ezartzen dien legerik edo tresna sozialik, ez kode ikusgarrikerik ere. Beste ezaugarri batzuen arabera erakita dago dena, baina, ikusezina direnez, oso zaila da haiek hautematea.

Beirazko sabaia taxutzen duten ESTEREOTIPOetako batzuk honela formulatzen dira: «emakumeek beldurra diote botere-ardurak betetzeari», «emakumeei ez zaie interesatzen erantzukizuneko ardurak betetzea» edo «emakumeak ez dira gai aginpidea eta boterea eskatzen duten egoera zailei aurre egiteko».

Asko dira ESTEREOTIPO horien ondorioak. Alde batetik, aginpidea eta boterea erabiltzea es-

katzen duten arduretatik kanpo uzten dituzte emakumeak, halako arduretarako egokiak ez direlakoan. Bestalde, emakume batzuek onartu eta barneratu egiten dute estereotipo hori eta errepikatu egiten dute, auzitan jarri gabe, berek hartutako erabakien emaitza balitz bezala.

Batzuetan, emakumeak erabakiak hartzeko espazio eta egituretan sartzeko borondatea egon denean, dagoeneko erakita zeuden antolakundeetan txertatu nahi izan dituzte, antolakundeak berak auzitan jarri gabe. «Beraz, maiz, oker gabiltza geure buruari honako hau galdetzen diogunean: Zer gertatzen zaie emakumeei eremu horietan ez izateko? Izan ere, galdera zuzena honako hau da: Egunerokoan guztion artean erreproduzitzen ditugun espazio eta harremanak diren heinean, zer gertatzen zaie erakundeei emakumeen parte-hartze ekitatiboa baztertzeko?»⁵¹.

Zoru itsaskorra

Zoru itsaskorra esaten zaie emakume asko eta asko piramide ekonomikoaren oinarrian harrapatuta uzten dituzten indarrei⁵².

Zoru itsaskor terminoak grafikoki erakusten du emakume askok enpresa edo erakunde bateko eskala hierarkikoan gora egiteko dauzkaten zailtasunak. Zailtasun horien arrazoi nagusiek emakumeoi emakume izate hutsagatik egozten zaizkigun erreproduktzio-LANekin dute zerikusia, halako lanak egiten ditugun gorabehera, ZAINZA-LANAK ez direlako modu orekatuan banatzen sexuen artean. Amatasunarekin, ezkontidearekiko betebeharrerekin eta etxeko LANekin lotutako LAN horiek «itsatsi» egiten zaizkio emakume izateari, eta horrek mugatu egiten du emakumeen lekua esparru publikoan, oro har, eta lan-munduan, bereziki.

Praktikan, LANAREN BANAKETA SEXUALAREN ondorioz, emakume askok oztopo handiagoak daukate proiektu kolektiboetan lanaldi osoan aritzeko, lan-zama bikoitz eta hirukoitzak lanaldi partzialak «hautatzera» bultzatzen baititu. Hautaketa hori ez da erabaki indibidual bat, ordea, berez besterik nahiko balute ere, emakumeei familia-bizitzako alderdi desberdinak «bateragarri bihurtzeko» ezartzen zaien «betebeharra» baizik.

Zoru itsaskor⁵³ horrek lanbide feminizatu guztietan du eragina, eta, ondorioz, lanbide horiek balioa galtzen dute eta soldata apalagoak izaten dituzte. LANAREN BANAKETA SEXUALAK, lanpostuak sexuaren arabera banatzeaz gain, lanpostuak ere desberdin baloratzen ditu, eta emakumeei lotutakoak gutxietsi egiten dira sistematikoki. Horrenbestez, genero-DESBERDINTASUNA amaitzeko ez da nahikoa lanpostu desberdinak pertsonen artean banatzea sexuaz bestelako irizpideen arabera. Horrez gain, auzitan jarri behar da, halaber, egungo LAN, baliabide eta jakintzei egozten zaien balorazio desberdina.

«Belusezko ghettoa» da lurzoru itsaskor hori izendatzeko erabiltzen den beste esamolde bat. Feminizatzen diren eta azkenerako emakumeentzako moduko LANTzat hartzen diren sektore profesionaleri eta lan-esparruei egiten die erreferentzia. Prozesu horrek berekin dakar soldatak murriztea, lan baldintzak okertzea eta hierarkian gora egiteko zailtasunak izatea.

Antolakundeen kultura

Antolakunde bateko kideek zuzentzat, baliozkoztat eta garrantzitsutzat jotzen denari buruz partekatzen dituzten esanahien multzoa (Natalia Navarro)⁵⁴.

Antolakunde guztiek daukate genero-harremanak eta egitura PATRIARKALAK erro-errotuta. «Hala, DESBERDINTASUNAK erreproduzitzen dituzten egitura, prozesu eta harremanez gain, indartzen eta mantentzen dituen balio- eta sinemen-sistema oso bat dago, identifikatzeko eta eraldatzeko askoz zailagoa dena, alegia»⁵⁵. Idatzita egon ez arren, erabaki, antolatzeko modu, komunikazio eta abar askoren atzean dagoen hori guztia da. Antolakundeek funtzionatzeko dauzkaten prozesuak dira. «Erakundeen "identitateari" dagokio, eta, arlo hori aldaketak egitearen kontrakoa izaten da, baina

aukera handiak eskain ditzake, erakundea ekitatearen eta justiziaren ikuspegi zabaletik eraldatu nahi bada»⁵⁶.

Erakunde-kultura hori «antolakundeen barruan LAN egiteko modu "normalari" lotutako balioek, historia gogoratuak eta praktikek osatzen dute, eta aldatuz doa denboran zehar»⁵⁷. «Itxaropenak sortzen dituen eta erakundearen barnean femeninotzat eta maskulinotzat hartzen dena definitzen duen iritzi partekatuen multzoa» da.

Antolakunde gehienak gizonak eta gizonentzat sortuak izanik, antolakundeon LAN-sistemak,



egiturek, arauak... ere haien esperientzia eta balioak islatzen dituzte normalean. Antolakunde batean «neutralizat» jotzen den guztiak sozialki eta kulturalki gizonei egotzi ohi zaizkien ezaugarriak lehenetsiko ditu seguruenik, eta emakumeen ezaugarritzat hartutakoak gutxietsiko ditu, aldi berean. Sinesmenei eta balio-sistemei ere eragiten die horrek.

EKONOMIA SOLIDARIOA mugimendu sozial eraldatzaile bat da. DESBERDINTASUNEN eta desberdintasunok sortzen dituzten zapalkuntza-sistemen kontra borrokatzea du

helburutzat, eta gero eta argiago daukagu ezinezkoa dela sistemari aurre egilea eta errotik aldatzea, antolakundeek DESBERDINTASUNAK sortzen eta erreproduzitzen dituzten kultura eta balioetan oinarritzen jarraitzen badute. Ezinbestekoa dugu parte hartzeko moduak zalantzan jartzea, berrikustea eta pixkanaka aldatzen joatea, enpleguaren eta LANAREN arteko bereizketa ulertzea eta antolakundeen izateko eta jarduteko moduan eragina daukaten logika PATRIARKALEZ jabetzea. Den-dena guztiz argi eduki gabe ere, ausardiaz eta kolektiboan jardunda, bidean aurrera egitea dago⁵⁹.

Generoa ezartzeko prozesuak

Antolakundeen arteko ikuspegi bat da, «generoa ezartzeko prozesu eta praktiken» multzotzat daukana generoa, eta ez kategoria monolitikotzat. Antolakundeen kasuan, gure arreta eskatzen du, konturatzeko nola lehenesten eta legitimatzen diren lan egiteko modu, praktika eta balio jakin batzuk, beste batzuk alde batera uzten diren aldi berean (Natalia Navarro)⁶⁰.

Lotura estua dauka ANTOLAKUNDEEN KULTURAREKIN, eta «genero-DESBERDINTASUNAK dakartzaten dinamikak uzten ditu agerian, baina, abiapuntutzat dinamika horiek hartu beharrean, emaitzei erreparatzen zaie». Anto-


lakundea osatzen duten kideek egiten, esaten eta dioten horretan jartzen da arreta, eta beren ekintzak justifikatzeko moduan. «Beraz, egoera jakin batean nagusi den genero-erregimenaren eguneroko eraikuntzaz arduratzen

da. Aukeratu daitezkeen jarduteko alternatibak modu erreal eta eraginkorrean mugatzen dituzten esparru material, normatibo eta ideologikoetan oinarritzen da»⁶¹.

Generoa ezartzeko praktika horiek kontzienteak izan daitezke, «emakume edo gizon izateak testuinguru jakin batean berekin dakartzan espektatibei, mugei eta aukerei lotutako ikuspegieta oinarritzen baitira».

Kultura bakoitzak berezkoak dituen ekintza, jokamolde eta ahozko nahiz gorputzaren bizidun mezuen katalogoa berariaz erabiltzearekin du zerikusia. Halakoek lotura estua dute maskulinoa edo femeninoa denari buruzko ESTEREOTIPOekin. Horien aurrean, kontuan hartu behar dira status quo BINARISTA desorekatua erreproduzitzen duten praktika inkontzientek ere⁶².

Hori dela eta, ez du axola antolakundeak soilik gizonen osatuta dauden, emakumez, genero fluidoko pertsonen ala denen arteko nahasketarekin batez. Beti daude genero-dinamikak, kontzienteki edo inkontzienteki erreproduzitzen ditugun generoa ezartzeko praktika batzuk. Praktika horietatik dator BERDINTASUN EZA, eta EKONOMIA SOLIDARIOKO antolakundeetan ere jasaten dira desoreka horrek berekin dakartzan arazoak.



Kooptazio-prozesuak eta parekoen arteko elkartasuna

Ardura-postuetara kooptazio-sistema baten edo sare informal baten bidez iristen da jendea, askotan. Bide horrek ez ditu gaitasun eta trebetasun objektiboak aintzat hartzen, hautagaia aurrez pentsatutako profil batera egokitzen ote den baizik (Amparo Novo, Mercedes Cobo eta Luis Gayoso)⁶³.

Ukaezina da emakumeek oztopo ugari gainditu behar dituztela ardura-postuetara, hots, botere dagoen postuetara, iritsi eta postu horiei eutsi nahi badiete. GENERO-estereotipoak, garapen profesionalerako aukera urriagoak, prekarizazioa eta jarduera- eta ikasketa-sektore feminizatuen estatus apalagoa dira oztopo horien atzean dauden elementuetako batzuk. Parte-hartze politikoaren alorrean hiru dira eragin berezia duten elementuak: gizonezkoen kooptazioa, emakumeen antolakuntza-falta eta jasaten duten lanaldi hirukoitza (produktiboa, erreproduktiboa eta militantea)⁶⁴.

Antolakunde baten barruan kooptazio-prozesu bat gertatzen da hutsik gelditzen diren postuak barne-mailako erabaki baten edo bozketa baten bidez betetzen direnean. Erabaki horrek ez du inongo kideri buruzko kanpoko iritzirik eskatzen eta antolakunde barruan erabakitako pertsona izendatu ohi da. Gizonen kasuan, parekoen arteko nolabaiteko elkartasun-logika batzuk identifikatu ohi dira antolakundeen barruan: gizonek beste gizon batzuen presentziaren alde egiten dute botere-espazioetan. Sistema horiek nabarmenki galarazten diete emakumei egitura horietara iristea, baina, gainera, kaltegarriak dira antolakundeen barne-demokraziarako eta aniztasunerako.

EKONOMIA SOLIDARIOAREN alorrean ere, botere-egituretan gora egin ahala emakumeak gutxiago

ordezkatuta daudela ikus dezakegu. Zuzendaritza-batzordeetan, zuzendaritza-kontseiluetan eta ordezkartza-organoetan emakumeak aurkitzeko zailtasuna arazo historikoa da elkarteen munduan, eta EKONOMIA SOLIDARIOAREN barruan ere hala gertatzen da, gutxienez gure inguru hurbilean. REAS Euskadik egindako Auditoria Sozialak identifikatu du badela zenbait urtetako arrakala bat emakumeen eta gizonen artean ardura politikoetan eta erabakiak hartzeko arduretan, bai eta kudeaketa-planak eta aurrekontuak prestatzeko eta onartzeko garaian ere, biak ala biak funtsezko tresnak izanik edozein erakundearen kudeaketan.

Horrela, bada, emakume gutxiago iristen dira botere-ardura nagusietara, eta, iritsiz gero, zailtasun ugari gainditu behar izaten dituzte. Gainera, behin iritsita, erakundea zuzentzeko eta parte hartzeko eredu maskulinoarekin bat egiteko presionatzen dituzte, edo eredu horrekin bat datozen emakumeak aukeratzen dituzte. Alde horretatik, esparru horietan emakume gehiagoren partaidetza sustatzea, gaur egun dauzkaten ezaugarriak ukitu gabe, lagungarria izan daiteke antolakundearen kultura aldatzeko, baina ez du hobekuntzarik ekarriko antolakundearen BERDINTASUN EZARI dagokionez, orain arteko LAN-ereduarekin eta balioekin jarraitzen badu.



Bizitzaren iraunkortasuna

SOZIALA

EKO

Ekonomia solidarioa

Ekonomia feminista

Ekofeminismoa

Ekonomia ekologikoa



Zaintzaren ekonomia

Elkarmendekotasuna

Erakunde bizigarriak

Lana

Ekonomia komunitarioa



2. Eraldaketarako proposamenak

Deshazkundera

Ekomendekotasuna

Bizitzaren iraunkortasuna

Bizitzaren iraunkortasuna esaten diogu bizitza merezi duten bizitzak bizitzeko ezinbesteko baldintzak izateko aukerari (Amaia Pérez Orozco)⁶⁵.

Bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegia kapitalaren eta lanaren arteko gatazkari buruzko kontzeptu marxista klasikoari zuzendutako kritikarik sortu zen. EKONOMIA FEMINISTAK eta EKOFEMINISMOAK kontzeptu hori hartu, eta kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka gisa birdefinitu zuten. LANA kontzeptua, ordaindutako enplegu gisa ulertuta, deseraikia zeukan EKONOMIA FEMINISTAK lehendik, bai eta EKONOMIA EKOLOGIKOAK ere, biek ala biek agerian jarri baitzuten kapitalismoaren hazkundereduak eta garapen ekonomikoari buruzko ereduak arriskuan jartzen zutela bizitza bera. Izan ere, Yayo Herrerok nabarmentzen duenez, «gizarte kapitalistetan, onura ekonomikoa sortzen duenari ematen zaio lehenetasuna pertsoneri mesede egiten dienaren aurretik. Eta askotan bi gauza horiek ez datoz bat»⁶⁶.

Horrela, bada, ikuspegi horrek bizitzaren zentraltasuna jartzen du bizitzari eusten dioten prozesu kultural, sozial, politiko eta ekonomiko guztien erdian, eta arbuia egiten ditu kapital-metaketan, onurak maximizatzean edo elite jakin batzuen interesen defentsan oinarritzen diren helburu kapitalistak, hala gizarteari nola ingurumenari dakartzkion ondorio larriak direla eta. Bizitza erdigunean kokatzeak, beraz, bizitzaren iraunkortasuna bermatzen duten prozesuak lehenestea esan nahi du, ELKARMEDEKOTASUNA eta EKOMEN-

DEKOTASUNA daukagun izakiak izateak guztiz baldintzatzen gaituela onartuta.

Aipatutako artikuluan Amaia Pérez Orozco berak dioen bezala, definizio horrek itxi gabe uzten ditu bi galdera oso garrantzitsu: zer nolako bizitzari eutsi behar zaion eta zer mekanismoren bitartez euts diezaiokegun. Lehenengo galderak ongizatea, oparotasuna, zoriontasuna eta antzeko kontzeptuak birdefinitu beharri egiten dio erreferentzia. Ikuspegi kritiko ekosozial eta feminista batzuetatik, eta baita bizimodu ona eta tankerako paradigmatetik ere, besteak beste, gogoeta garrantzitsuak egin dira munduan egoteko eta izateko modu berriak eraikitzeke helburuz. Gainera, ekonomia kritiko heterodoxo eta eraldatzaileek ere egiturazko aldaketak gauzatzeko proposamen ugari egin dituzte, trantsizio postkapitalista batera eramango gaituen prozesu ororen erdigunean kokatzeko bizitzaren iraunkortasuna.

Horrela, bada, EKONOMIA FEMINISTAREN alorrean, Cristina Carrasco⁶⁷ zera proposatzen du: «gizaki guztien beharrak asetzeko lan egiten duen ekonomia iraunkor bat behar dugu[la], bere mundu sozial eta naturala erreproduzitzeko gaitasunari eusten diona (...) eta produkzioa eta merkatua komunitateen eta pertsonen zerbitzura jartzen dituen». Ekonomiaren definizio hori bat dator, halaber, EKONOMIA SOLIDARIOAREN ezaugarri nagusiekin.

Ekonomia solidarioa

Praktika sozioekonomiko formal edo informalak, kolektiboak zein indibidualak, beren kideen edo beste pertsonen premia eta nahiak asetzea irabazien gainetik jartzen dutenak. Praktika horien guztien multzoa da ekonomia solidarioa. Kolektiboak direnean, jabetza ere kolektiboa da eta kudeaketa, demokratikoa. Ez dute inolako erakunde publiko edo pribaturekiko mendekotasunik. Ekitatea, elkartasuna, iraunkortasuna, parte-hartzea, inklusioa eta komunitatearekiko konpromisoa dira eredu hori gidatzen duten balioak, eta aldaketa soziala sustatzen dute (Jordi Garcia Jané)⁶⁸.

Kapitalismo modernoa sortu zenetik, ekimen ugari agertu dira berdintasun ezaren eta bidegabekeriaren arazoei erantzuteko, eta sistema horrek dakartzan ondorio kaltegarriei aurre egiteko. Praktika alternatibo horien arteko batzuk ekonomia soziala kontzeptuaren bidez definitu dira, XIX. mendearen amaieran lehenbiziko kooperatiba eta mutuak sortuz gero. Ekimen horiek, ikuspegi eta modalitate desberdinekoak izanda ere, ezaugarri batzuk partekatzen dituzte: pertsonak lehenestea kapitalaren aurretik, parte-hartzean oinarritutako kudeaketa demokratikoaz baliatzea, autonomoak izatea beste eragile batzuei dagokienez eta soberakinak beren kideentzako nahiz gizarte osoarentzako zerbitzuetara bideratzea.

Ekonomia sozialaren ibilbide historiko horretan koka dezakegu, hain zuzen ere, ekonomia solidarioaren sorrera eta garapena, profil propioak dituen azpi-esparru gisa. Eredu horrek bere kontzeptu eta praktika bereziak dauzka, eta esparru akademikoan, gizartean eta ekonomian gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den mugimendu sozial bat ere bada. Horrela, bada, «ekonomia sozialaren enbor beretik sortu da, eta harreman ekonomikoa parametro desberdinetatik berrezartzeko ahalegina da. Kapitalaren logikaren aurrean, esparru publiko zein pribatuen merkantilizazio handiagoaren

aurrean eta ahalik eta mozkin handiagoaren bilaketaren aurrean, ekonomia solidarioak justizian, lankidetzan, elkarrekikotasunean eta elkarrekiko laguntzan oinarritutako ekoizpen, kontsumo, banaketa eta finantzazio harremanak eratu nahi ditu. Kapitalaren eta bere metaketaren aurrean, ekonomia solidarioak pertsonak eta euren LANA jartzen ditu sistema ekonomikoaren erdigunean, eta beti-beti pertsona guztien ongizatearen eta planetako bizitzaren ugalketaren zerbitzura dagoen zeregin instrumentala ematen die merkatuei»⁶⁹.

Ekonomia xede gisa ez, baizik eta bitarteko gisa aldarrikatzen duen ikuspegia eta praktika da, pertsonen eta komunitateen garapenaren zerbitzura dihardu eta pertsonen ongizatea (edo bizitza ona) bultzatzeko eta ingurune sozial eta naturala hobetzeko tresna bat da. Kapitalaren eta haren metaketaren gainetik dagoen balioa ematen die pertsonari, haien beharrezan, gaitasunari eta LANari zein BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA bermatzen duten prozesu sozial eta ekologikoei. Era berean, birbanaketan eta berdintasunean oinarritutako eredu sozioekonomiko postkapitalista bat aldarrikatzen du.

Mugimendu bat ere bada, ekonomikoa, soziala eta politikoa, plurala eta nazioartekoa, eta ekonomia, gizartea eta planeta aldatzen saiatzen da, beste sare eta antolakunde sozial batzuekin batera.

Ekonomia feminista

Mugimendu feministak esanahiz bete ditu emakumeen existentziari lotutako hutsuneak eta ordezkapen-gabezia, eta gure aurretik jardun ziren emakumeen berri eman digun genealogia femeninoa berreraiki du, munduan dugun presentziari eta munduari berari (norbere esperientziatik hitz eginez) esanahi berri bat emateko ahalegin komunari dagokionez (Marta Selva⁷⁰, Ana Bosch-en)⁷¹.

Feminismoa honela definitu dezakegu: sexuen arteko eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzen duen pentsamendu-korronte bat da, etengabe garatzen ari dena. Mundua, botere-harremanak, gizarte-egiturak eta sexuen arteko harremanak ulertzeko beste modu bat da (Mujeres en red)⁷².

Gaur egun ekonomia feminista izenez ezagutzen dugun joerak 1960ko hamarkadaren amaieran eman zuen aurreneko urratsetako bat zera izan zen: emakumeek egiten dituzten etxeko lanak ekonomiaren arloan txertatzea eta lan ordainduarekin parekatu daitekeen lan-moldea balitz bezala aztertzea (Susan Himmelweit)⁷³.

Ekonomia feminista pentsamendu ekonomiko heterodoxoaren korronte bat da, era askotako jarrerak biltzen ditu, baina enbor komun bat dauka. Horrela, bada, emakumeek historian zehar jarduera ekonomikoari egindako ekarpenak gutxietsi eta, gehienetan, aintzat hartu ez dituzten teoria ekonomiko hegemonikoen kritika du abiapuntu. Ekarpen horiek ekonomiaz kanpoko esparruetara zokoratu izan dira, hau da, balio-sortzailatzat hartzen ez den eremu ilunera, nahiz eta ezinbestekoak izan giza espeziearen eta bere baitan hartzen gaituen biosferaren BIZITZAREN IRAUNKORTASUNERako.

Hortik abiatuta, iraganean ikusezinak izan diren emakumeen esperientziak berreskuratzen dituzten proposamenak egiten ditu, etxeko LANei eta ZAINITZA-lanari buruzkoak bereziki. Horren bidez, ekonomia monetizatuaren mugak urratzen ditu. Ekonomia or-

todoxoaren ardatz nagusia irabazi-asmoari lotuta dago estu-estuki. Ekonomia feministak analisi ekonomiko tradizionalaren esparrua auzitan jarri, eta esanahi berria ematen die ekonomian erabiltzen diren kontzeptu nagusiei, hala nola subjektu ekonomikoari, LANari, ongizateari, aberastasunari eta garapenari, besteak beste. Pertsonen artean eta komunitateen barruan gertatzen diren harreman sozioekonomikoak ikuspuntu bi-ziago batetik erakusteko aukera eskaintzen digu horrek, egunerokoan funtsezkoa den horretatik abiatuta eta gizakion ELKARMENDEKOTASUNA eta EKOMENDEKOTASUNA zeinen garrantzitsuak diren kontuan izanik. Horri jarraikiz, analisiaren erdigunera igarotzen dira elkartasuna, elkarlaguntza eta antzeko balioak, BIZITZAREN IRAUNKORTASUNAREN mese-detan eta bizitza-kapitala gatazka gainditzeko xedez.



Ekonomia solidarioa
eta feminista

Elkarmendekotasuna

Gorputza finitua eta kaltebera dela eta premia batzuk dituela onartzea ezinbestekoa da gure espeziearen elkarmendekotasuna ulertzeko eta konturatzeko gizateriak ezin duela bizi elkarrekikotasunik, lankidetzarik, elkarrekiko loturarik eta harremanik gabe (Yayo Herrero)⁷⁴.

Gizakiok, berez, sortzen garen eta bizi garen kolektibo sozialaren menpeko izakiak garela esan behar dugu, lehenik eta behin. Horrek esan nahi du elkarmendeko izakiak garela gure bizitza osoan zehar. Bizialdi horretako zenbait fasetan ageriago gelditzen da menpekotasun hori, behar dugun zaintza-maila dela eta, esate baterako, umetan, nerabezaroan, gaixo gaudenean edo zahartzaroan. Gertukoek ematen diguten zaintzaren mende dago gure bizirau-pena, beraz, eta denbora eta energia partekatu asko eskatzen du horrek.

Gizarte patriarkaletan, emakumeak izan dira pertsonak artatzeko eta zaintzeko LANez arduratu direnak, nagusiki. Ez naturak horretarako dohain bereziak eman dizkielako, LANAREN BANAKETA SEXUALAK rol hori inposatu dielako baizik. LAN hori etxeko esparru pribatu eta

ikusezinean egiten da ia beti, eta familia-instituzioaren arauen arabera antolatzen da⁷⁵.

Nolanahi ere, lotura hori guztiz garrantzitsua bada ere, teoria ekonomikoek gutxietsi eta zenbaitetan baztertu ere egin izan dute, indibidualismo metodologikoa eta pertsonen eta haien ingurune sozialaren arteko bereizketa hartu izan baitute oinarritzat. Horri jarraikiz, ahaztu egin dute gure jokabidearen zati handi bat sozialki eraikita dagoela eta, beraz, funtsezkoa da bizi garen testuinguruaren xehetasunak eza-gutzea gure gizarteko joko-arauak aztertu ahal izateko. Era berean, aintzakotzat hartu behar ditugu hitzarmen sozialetan, gatazketan eta interes desberdinetan eragina duten arauak ere, batzuk agerikoak baitira eta beste batzuk, aldiz, oso sotilak edo ezkutukoak.

Zaintzaren ekonomia

Aditzak ez dira abstrakzioan existitzen. Ez dago denbora eta toki batetik eta zirkunstantzia ekonomiko, politiko eta ekologiko batzuetatik bereizitako zaintzarik (Belén Gopegi)⁷⁶.

Zahartzen eta gaixotzen diren eta zainduak izan behar duten gorputzetan bizi gara pertsonok. Alde horretatik, EKONOMIA FEMINISTAK bereziki erreparatu dio zaintza-LANek (gehienetan ordaindu gabekoek) bizitzaren zikloan zehar betetzen duten eginkizunari, eta gogoeta egin du zaintza horrek gure bizi-kalitatean duten garrantziaren inguruan. Horrela, bada, ekonomia-eredu horren arabera, alde batetik, natura eta, beste alde batetik, etxeko LANAK eta zaintza-lana egungo sistema ekonomikoaren zutabe nagusietako bi dira, haiek gabe bertan behera eroriko bailitzateke sistema osoa.

EKONOMIA FEMINISTAK agerian utzi duenez, etxeko LANAK eta zaintza-lana emakumeei egotzen zaizkie normalean, harreman hori naturalizatuz, batetik, eta emakumeen komunitateen erreproduzio sozialari egiten dioten ekarpena guxtiatsiz, bestetik.

LAN horiek ordaindu egiten direnean, emakume etorkin edo arrazializatuak kontratatzeke joera egoten da, eta ZAINZTA-KATE GLOBALAK deritzon fenomenoari bide ematen dio horrek. Fenomeno hori globalizazioaren beste ondorio bat da, zaintzaren globalizazioarena kasu honetan, eta analisi ekonomikoek aztertu gabe uzten dute sistematikoki. Kate horiek lotzen dituzten mailak emakumeak dira, gehienak herrialde pobretuetatik etorriak. Emakume horiek Iparraldeko herrietara joaten dira bizitzera, hango etxe eta familiez arduratu eta zaintzera, beren seme-alabak familiako edo modu prekarioan kontratatutako beste emakume batzuen esku utzita.

Beste emakume horiek ere, batzuetan, beren herritik lan bila alde egindakoak izaten dira⁷⁷.

ZAINZTA-KATE GLOBAL horiek eratzeko garaian, bi krisik izan dute eragina. Alde batetik, herrialde pobretuetako erreproduzio sozialaren krisia daukagu. Krisi horrek emigratzera bultzatu ditu gizon eta emakume asko, baldintza material hobeen bila. Bestetik, ZAINZTAREN KRISIA deiturikoa daukagu Hegoalde eta Iparralde global ugarietan, gaur egungo botere hegemonikoaren egiturei lotutako Iparralde bat baitauka Hegoalde bakoitzak eta Hegoalde bat, Iparralde bakoitzak.

Hegoalde globalean, baina, fenomeno hori ez dago nazioarteko migrazioekin erlazionatuta soilik, lotura dauka, halaber, barne-immigrazio ziklo guztiz arrazializatu eta etengabeekin ere. Argitu beharra dago analisi politiko eta sozioekonomiko kreatiboan egin behar dugula Hegoalde eta Iparralde globalei buruz, irudi kartografikoek ez baitituzte munduko errealitateak islatzen. Alegia, Hegoalde eta Iparralde globalak erlazionatuta daude botere-dinamiken barruan. Hegoalde horietan, beste ezagutza batzuk ari dira taxutzen, gizakien bazterkeriatik eta sufrimendutik eta SEXISMOAREN, arrazakeriaren, kolonialismoaren eta kapitalismoaren aurkako borroketatik abiatuta⁷⁸.

EKONOMIA SOLIDARIOAN badakigu zeinen garrantzitsuak diren Hegoalde eta Iparralde globalaren arteko gurutzaketak, eta gure proposamenetan gero eta pisu handiago dute gure gizarteetan bizirik dirauten sexismoa eta arrazismoa gainditzten saiatzzen diren praktikek.

Lana

REAS Euskadin lanez hitz egiten dugu, pluralean, bizitza iraunaraztea, egunerokoan eta belaunaldiz belaunaldi erreproduzitzea eta arretaz zaintzea ahalbidetzen duten giza jarduera guztiei egiten diegulako erreferentzia. Zaintza eta harremanak erdigunean kokatzen dira, beraz, eta pertsonen eta komunitateen bizi-kalitatearen funtsezko osagaia dira, bai eta herritarren, herrien eta estatuen arteko harreman ekonomikoena ere. Ikuspegi horretatik, enplegua pertsonak dauzkaten gaitasunak garatzeko esparru gisa aldarrikatzen dugu, eta gaitasun horiek komunitatearen eta, oro har, biztanleria osoaren premiak asetzera bideratu behar direla uste dugu. Enpleguak lankidetzan eta ekoizpen-bitartekoetan nahiz erabaki garrantzitsuetan parte hartzeko eskubidean oinarritu behar du, ondasunak eta zerbitzuak modu iraunkorrean ekoizteko erantzukizuna, lan-baldintza duinak eta ekoizpen- eta merkataritza-harreman bidezkoak errespetatuz (ekoSolFem, REAS Euskadi)⁷⁹.

Industrializazioaren hasieratik osatuz joan den lana terminoari buruzko kontzeptualizazio baten oinardekoak gara. Ikuspegi horrek lana enpleguarekin identifikatzen du, hau da, merkatuan egiten diren jarduera guztiekin. Definizio horretatik kanpo gelditzen dira diruaren truke edo kontratuzko harreman baten barruan egiten ez diren gainerako giza jarduera guztiak. Lanaren eta enpleguaren arteko identifikazio hori ez da zerbait naturala, LANAREN BANAKETA SEXUALArekin lotura daukan prozesu konplexu baten eta ekonomia teorikoak termino hori definitzeko izan duen moduaren emaitza baizik.

EKONOMIA FEMINISTA aitzindaria izan da ekonomia zientziak ikusezin bihurtutako lanak (erreproduzizio-lana, etxekoa, ZAINZTA-lana, komunitatekoa...) azalertzeko garaian. Halako lanak emakumeek egin izan dituzten historikoki,

dohainik edo gaizki ordainduta, baina ezinbestekoak dira ekonomiak ondo funtzionatzeko, bizitza ZAINZTEKO eta ongizatea sortzeko.

Lan ordaindua eta ordaindu gabea bereizten ditugu, beraz, normalean lan produktibo eta erreproduktibo (etxeko lanak edo ZAINZTA) gisa sailkatu izan direnak, hurrenez hurren. Kulturalki sexuaturtako bi esparru horiek (produktiboa/ordaindua/maskulinoa, erreproduktiboa/ordaindu gabea/femeninoa) harreman hierarkikoa daukate eta harreman horren barruan produktiboa motortzat hartzen da eta erreproduktiboa, ondokotzat. Horrela, bada, bizitza mehatxatuta dagoeneko sistema ekonomiko baten barruan, «merkatuek egindako kaltea konpontzen eta bizitzak aurrera ateratzeko beharrezkoa den gainerako guztia egiten duten lanak dira ZAINZTA-lanak»⁸⁰.

Ekonomia ekologikoa

Aurrerapenaren eredu maskulinoak saldu digun hazkunde ekonomikoa diruaren eta kapitalaren hazkundera da eta beste aberastasun-mota batzuk (naturak eta emakumeek sortutakoak, adibidez) suntsitzean oinarritzen da (Vandana Shiva)⁸¹.

Ekonomia ekologikoa eredu ekonomiko jakin bat, iraunkortasunari dagokionez, bidegarria ote den aztertzen duen zientzia da. Behar dituen material-, energia- eta hondakin-fluxuei erreparatzen die, horretarako⁸². Azterketa-eremu horren funtsezko eta saihestu ezineko ideia bat zera da: giza espezie gisa naturaren mendekoak garela. Ikuspegi horren arabera, naturatik datorkigu bizitzari eusteko behar dugun guztia, eta gizaki guztiz EKOMENDEKOAK⁸³ bihurtzen gaitu horrek.

Horri jarraikiz, natur sistemaren (biosferaren) eta haren barnean garatzen diren azpisistema sozial eta ekonomikoen arteko harremanak aztertzen ditu ekonomia ekologikoak, eta argi uzten du etengabeko hazkunde ekonomikoa bideraezina dela planetaren muga fisiko eta biologikoen barnean. Hori dela eta, «baliabide mugatuak dituen Lur planetaren eta etengabeko espansionismoan oinarrituta dagoen eta metaketaren dinamikak eraginda hazten den sistema sozioekonomikoaren arteko gatazkaz ohartarazten digu»⁸⁴. Sistema kapitalistak naturaz egiten duen esplotazioak menderakuntza-

logika bati eta bizitza, osorik hartuta, gutxiesten duen logika bati erantzuten die.

«Hazkunde» ekonomiko horren emaitzak, irrealak izateaz gain, berdintasun eza sakon bat dakar, fisikoki ezinezkoa baita gizarte guztiek kontsumo- eta erauzketa-erritmo berarekin bizitzea⁸⁵. Alde horretatik, ekonomia ekologikoak izaera biofisikoa duen iraunkortasunaren adierazle bat garatu du: aztarna ekologikoa delakoa. Nazioartean finkatu den adierazle horrek zera neurtzen du: komunitate jakin bateko batez besteko herritar batek kontsumitzen dituen baliabideak ekoizteko eta sortzen dituen isurpenak xurgatzeko behar den azalera ekologikoki produktiboa, azalera hori edonon dagoela ere⁸⁶. Adierazle horren bidez, oso zehatz erakutsi da egungo ereduak dakarren desoreka sozialaren zenbaterainokoa eta eredu horrek zer-nolako ondorioak eragiten dizkion ingurumenari. Yayo Herrerok azaltzen duenez, «biztanleria osoak batez beste espainiar batek bezala kontsumituko balu, hiru edo lau planeta beharko lirerateke. Eta hori AEBra eta tankerako herrialdeetara estrapolatuko bagenu, bost eta zazpi artean».

Iraunkortasunean oinarritutako kultura bate-rantz jotzea proposatzen du ekonomia ekolo-gikoak, beraz, errotik murriztuz bai energiaren eta materialen erauzketa, bai sortutako hon-dakinak, biosferaren mugetara egokitu arte. Korrante horrek naturaren erritmoekin bat datorren ekonomia-eredu berria sustatzen du, bizimodu egokia izateko beharrezkoa dena ekoizten duen eta nagusiki baliabi-

de berriztagarrietan eta inguruko baliabi-deetan oinarritzen den eredu bat. Horrek bestelako lurralde-antolaketa bat eskatuko du nahitaez: herri- eta eskualde-mailako merkatuak eta merkaturatze-ziklo laburrak inposatu beharko dira, eta paradigma so-zialaren aldaketa sakona, produkzioarekin, kontsumoarekin eta ZAINTZArekin duen erla-zioari dagokionez.

Ekomendekotasuna

Gizakiok naturatik lortzen dugu bizitzeko behar duguna: jatekoa, ura, aterpea, energia, mineralak... Horregatik esaten dugu ekomendekoak garela. Naturarekiko mendekotasun materialek gure planetaren muga fisikoez jabetzera garamatzate zuzenean. Mugatua da lurrazaletik mineralak ateratzeko aukera eta mugatuak dira, halaber, ziklo naturalak leheneratzeko tasak eta planetaren estoldak (Yayo Herrero)⁸⁷.

Pertsonak elkarmendekoak gara, baina ez soilik zentzu sozialean, gure bizitza natura-ren menpe baitago eta egon baita beti⁸⁸, eta, bizitzari eutsiko badiogu, gure gizarteek natura-rekin duten ELKARMENDEKOTASUN horri eutsi beharra daukagu. Beraz, izaki erabat ekomendekoak gara, gure bizitzako jarduera guztietarako erabiltzen ditugun ondasun eta baliabide guztiak naturatik datozelako. Natura gara. Mugak dituen ingurune biofisiko baten parte garela onartu behar dugula esan nahi du horrek. Laburbilduz, naturatik eta naturan bizi gara eta, espezie gisa bizirik atera nahi badugu, zaindu egin behar dugu.

EKONOMIA SOLIDARIOAK ekomendekotasun hori onartu eta ingurumen-iraunkortasuna⁸⁹ proposatzen du bere printzipio gidari nagusien artean. Jarduera produktibo eta ekonomiko guztiek naturarekin duten lotura azpimarratzen du printzipio horrek. Naturarekin harreman egokia izateko beharra nabarmentzen du, aberastasun- eta osasun-iturri baita, eta ezinbestekotzat jotzen du gure jarduerak ingurumenean duten inpaktua (aztarna ekologikoa) etengabe ebaluatzea. Ildo horri jarraikiz, natura errespetatzen duen ekonomia-eredu bat defendatzen du⁹⁰.

Deshazkundera

Deshazkundera hazkunderaren ekonomiaren kritika da, batez ere. Hizkuntza ekonomikoak monopolizatua daukan eztabaida publikoaren deskolonizazioa aldarrikatzen du eta hazkunde ekonomikoa helburu sozialtzat hartzeari utzi beharra dagoela defendatzen du. Horrez gain, jarraitu beharreko norabidea adierazten du: gizarteek baliabide gutxiago kontsumituko dituzte eta gaur egungoaz bestelako bizimodua izango dute (Giorgos Kallis, Federico Demaria y Giacomo D'Alisa)⁹¹.

Ekonomia kapitalistak ingurumenaren eta gizartearen esparruetan dauzkan mugez jabetzearekin batera sortu zen deshazkunderaren teoria, eredu ekonomiko hori gehiegizko ekoizpen eta kontsumoan oinarritzen baita hazteko eta ekonomia garatzeko.

1970eko hamarkadako ekologia politikoaren inguruan sortu zen terminoa, eta 1990eko hamarkadan zabaldu zen, gehienbat. Planetaren mugei eta biogaitasunari buruzko ikerketek gero eta argiago erakusten dute ezinezkoa dela egungo ekoizpen- eta kontsumo-erritmo ez-iraunkorri eustea, ezinezkoa den bezala erritmo hori

planetako biztanle guztiei zabaltzea. Asko dira gure planetaren izaera finitua erakusten dituzten fenomenoak: biodibertsitatea murrizten ari da eta gero eta gutxiago dira landu daitezkeen azalerak eta ur geza, energia-iturriak agortzen ari dira, berotze globala areagotzen ari da eta, aztarna ekologikoaren arabera, gure esku 1,7 Lur planeta bagenitu bezala bizigara⁹².

Serge Latouche izan zen deshazkunderaren teorialari eta hedatzailea, eta oinarritzko irizpide batzuk finkatu zituen bere teoriari buruz. 8 R-ak direlakoetan laburbildu zituen

(frantsesezko jatorrizko inzialengatik): indarrean dauden balioak berrebaluatu eta lankidetzan oinarritutako beste batzuekin ordezkatu, egungo bizimodua birkontzeptualizatu, ekoizpen-sistemak eta gizarte-harremanak berregituratu, ekoizpena birlokalizatu eta merkataritza-zirkuituak murriztu, aberastasuna birbanatu, kontsumoa murriztu, gure bizimodua sinplifikatu, produktuak berrerabili eta birziklatu haien bizi-zikloa luzatzeko⁹³.

Deshazkunde-ekimenek, berehala aplikatu beharreko egiturazko eta errotikako aldaketak proposatzeaz gain, gure gizarte eta ingurumenak egun bizi duten larrialdi-egoera ikusita, bat egiten dute gizarte moldakorrak

(berr)eraikitzeko behararekin eta bizitzeko eta antolatzeko modu berriak proposatzen dituzte. Eredu berri horiek oinarritzat izango dute ondasun komunak kolektiboki kudeatzea eta errekonozitzea, elkarbizitza-eredu berriak sustatzea, sinpletasuna lantzea eta ZAINNTZA erdigunean jartzea, besteak beste.

Ekonomia produktiboak daukan erabateko zentralitatea kritikatzeko eta ZAINNTZAREN rola eta kudeaketa berraztertu beharra dagoela aldarrikatzean datoz bat deshazkundera eta EKONOMIA FEMINISTA, hain zuzen ere, eta EKONOMIA SOLIDARIOAREKIN, berriz, jarduera ekonomikoen kooperatibizazioa eta EKONOMIA KOMUNITARIO di-relakoaren bultzada partekatzen dute.

Ekofeminismoa


*Ekomendekoak eta elkarmendekoak gara. Pertsonen bizitzak saihestu ezinezko bi mendekotasun dauzka; pertsonak naturarekin daukatena eta, aldi berean, beste pertsona batzuekin daukaguna (Yayo Herrero)*⁹⁴.

Ekofeminismoa XX. mendeko 70eko hamarkadaren erdialdean sortu zen indarrean zegoen sistema ekonomikoa kritikatzeko zuzen mugimendu sozial gisa, 1960ko hamarkadan berpiztu zen feminismoaren olatuaren eta garaiko mugimendu ekologistaren barruan.

Mary Mellorren hitzetan, «mundu naturalaren esplotazioa eta narriaduraren eta emakumeen menpekotasun eta zapalkuntzaren arteko lotura bilatzen duen mugimendua da» ekofeminismoa⁹⁵. Hori horrela izanik, mugimendu ekologistako eta mugimendu feministako elementuak dauzka, eta erronka bat da bientzat. Vandana Shivaren arabera, ekofeminismoa filosofia eta praktika feminista bat da eta

«sistema emakumeen menpekotasunaren, «atzerriko» herrien eta haien kolonizazioaren eta naturaren kolonizazioaren bidez eratu zelako, eratzen delako eta horren bidez eusten diolako»⁹⁶ sortu zen. Ekofeminismoarentzat txanpon beraren bi aurpegiak dira emakumeen menderakuntza eta naturaren esplotazioa: bizitza etekin ekonomikoa lortzeko lehentasunaren menpe jartzen duen txanponarenak, hain zuzen ere.

Horrela, bada, natura deitu izan denaren eta emakumeen menderakuntzaren arteko artikulazioak eta simetriak azaleratu beharra dagoela planteatzen du ekofeminismoak. Ekofeministen ikuspegitik naturaren mundua, gi-



zateria barne, elkarlotutako eta elkarmendeko mundu bat da, eta krisi ekologikoak aztertze-ko garaian beharrezkoa da genero-DESBERDINTASUNEN rola aintzat hartzea, gizonek eta emakumeek harreman desberdina izaten baitute naturarekin.

Gaur egun, mugimendu plurala da ekofeminismoa, eta munduko errealitateei buruzko ikuspegi ugari eskaintzen dituzten era askotako ahots kritikoak biltzen ditu. Ikuspegi teoriko desberdin horiek, baina, bat datoz gure planetako gizakien eta ez-gizakien bizitzak partekatze beharri dagokionez. Ekofeministen iritziz, bizitzaren zatiezintasun eta ELKARMENDEKOTASUNA (bizitza horren adierazpen eta forma guztietan), duintasuna, justizia kogni-

tiboa eta etika sozioekonomiko eta politikoa defendatzeko, ezinbestekoa da patriarkatuaren aurka borrokatzea. Garrantzitsua da nabarmentzea lurra existentziaren baldintzak bermatzen dituen matrizea dela ekofeministentzat, eta ez paisaia soil bat edo merkataritzako salerosketen baliabide bat.

EKONOMIA SOLIDARIOAK bat egiten du kapitalismoa hedatu ahala orokortu zen mito bati aurre egiten dioten proposamenekin. Mito horren arabera, gizakiak natura erabat kontrola zezakeenez, beste ekoizpen-faktore bat gehiago bihurtu zen natura (lurra eta bere osagaiak baliabide natural esplotagarriak bihurtu ziren) eta, ondorioz, pribatizatu, salerosi eta kapitalaren interesen mende jar zitekeen (Polanyi, 2003)⁹⁷.

Ekonomia Komunitarioak

Beharrak asetzeko helburua duten artikulazio kolektibo guztiez ari gara, zeinetan boluntarioen lanak berebiziko garrantzia baitauka eta sarbidea ez dago ordainketari lotuta, komunitate edo talde bateko kide izateri eta han parte hartzeari baizik (...). Hori ere ekonomia sozial eta solidarioaren parte da, nolabait ere, eta estu lotuta dago zaintzaren ekonomiekin (Alvaro Porro)⁹⁸.

Komunitateen beharrak asetzeko eta komunitate barruko loturak indartzeko auzo edo lurralde jakin bateko herritarren arteko lankidetzeta eta artikulazio kolektiboa bultzatzen duten ekimen ugari aurki ditzakegu. Beharrak asetzeko garaian elkarlaguntzara, komunitatearen autoantolaketara eta LAN boluntariora jotzen dute, merkatuko bitartekaritzarik gabe.

Ekonomia komunitarioak direlakoez ari gara. Hala EKONOMIA FEMINISTARENTZAT nola EKONOMIA SOLIDARIOARENTZAT ekimen ekonomiko alternatiboak dira, nahiz eta ekonomia konbentzionalak ez dituen halakotzat hartzen, bizitzaren erreproduktzioarekin zerikusia duten lanak bezala, ez direlako merkatu kapitalistatik igarotzen. Horrela, bada, ekonomiaren kontzeptu hedatu bat proposatzen dute, pertsonen eta komunitateen beharrak asetzea eta ongiza-

tea areagotzea jarduera ekonomikoaren erdi-erdian jartzen duena.

Komunitatea eraikitzen duten praktikak dira. Indibidualismoa, lehia eta elkarrekiko mesfidantza bultzatzen dituen logika kapitalistaren aurrean, lankidetzeta, doakotasuna eta pertsonen arteko harreman kooperatiboak aldarrikatzen dituzte praktika horiek. Autogestioa hedatuz doa gizartearen autoantolaketaren bidez eta ondasun komunak sortzen ditu bere jardunean.

Praktika horien artean komertzializatu gabeko trukean oinarritutako ekimenak aipa ditzakegu, adibidez, hala nola denbora-bankuak, truke-merkatu edo -azokak, doako dendak, espazioak eta baliabideak taldeen artean trukatzeko sareak, komunitateak erabiltzeko

tresnak eta bestelako erremintak eskaintzen dituzten «gauzen bankuak», haziak, ezagutzak eta baliabide teknologikoak trukatzeko sareak...

Bestalde, «moneta sozialak» (edo tokikoak, osagarriak, komunitarioak...) direlakoak aipatu behar ditugu. Halako sistemek legezko diruaz bestelako moneta edo diru bat erabiltzen dute produktuak eta zerbitzuak trukatzeko. Sistema hori erabiliz, lurralde jakin bateko tokiko ekonomia edo sare jakin bateko trukeak indartzen eta balio alternatibo jakin batzuetan (ekologian, feminismoan, kultura eta hizkuntza gutxituetan...) oinarritutako kontsumoa sustatzen saiatzen dira.

Hezkuntzaren eta ZAINTZAREN alorrean ere bada tankera horretako ekimenik, hala nola umeen hazkuntzaren inguruko alderdiak

partekatzeko «hazkuntza-taldeak», umea jaio ondoren eta bularra hartzen duen bitartean elkarri laguntzeko «edoskitze-taldeak» hezkuntza formalaz bestelako esperientzia alternatiboak, adinekoen zaintzaileen elkarlaguntzarako taldeak eta abar.

Elikagaien sektorean, bestalde, tokiko produktuak eta produktu ekologikoak kontsumitzeko taldeak dauzkagu, supermerkatu kooperatiboak, herri-baratzeak...

Azkenik, lankidetzan oinarritutako beste ekimen hauek ekonomia komunitarioen barruan sar ditzakegu: autoa partekatzea, etxebizitza partekatzea, lankidetzan oinarritutako ekoizpena teknologia berrien arloan, kultur arloko kooperatiba eta ateneoak eta abar⁹⁹.



Antolakunde bizigarriak

Ekonomia solidarioak asmatutako kontzeptu horrek ikuspegi ez-patriarkaletik sortutako antolakundeei egiten die erreferentzia. Halakoak antolakunde irekiak izaten dira, malguak, askotarikoak, demokratikoak, lidergo kooperatiboetan oinarritzen dira, parte-hartzea sustatzen dute eta, emaitzak ez ezik, garrantzitsuak iruditzen zaizkie prozesuak eta harremanak ere. Era horretako antolakundek ikuspegi kritiko batetik berrikusten eta pentsatzen dituzte beren jarduteko moduak eta elkartasuna eta inpaktu soziala aintzakotzat hartzen dituzte beren balantze eta kontu-ikuskapenetan (Bizigarri, REAS Euskadi)¹⁰⁰.

Kontzeptu hori eraikitzen ari da oraindik, eta lotura argia du REAS Euskadik eta EKONOMIA SOLIDARIOAK jorratzen dituzten alderdiekin. Hori dela eta, bi-bien ekintzen funtsezko elementua bihurtu da: bizitzaren zerbitzura eta ez kapitalaren eta irabazien zerbitzura dau den ekonomiak eraikitzea eta bizitza gure praktiken eta antolakundeen erdigunean jartzea¹⁰¹. Horretarako ezinbestekoa da hala emakumeentzat nola gizonentzat bizigarriak diren antolakundeak, egiturak, funtzionamoldeak... sortzea. Ikuspegi ez-patriarkaletatik eraikitako antolakundeak, jarduteko beste modu solidarioagoak eta gizon-emakumeen


arteko ekitatea eta justizia erdigunean jartzen dituztenak.

«Bizigarri: REAS Euskadiren genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketako prozesua» oinarri hartuta, aurrerapausoak egin dira kontzeptuaren definizioari dagokionez. Horrela, bada, antolakundeen ikuspegi tradizionalago edo hegemonikoagoen aldean, Bizigarrin antolakundeek izan beharko lituzketen balio batzuk identifikatu ditugu: ERANTZUNKIDETASUNA, lankidetzeta, pertsonalaren eta kolektiboaren arteko lotura eta arreta, eta LANA eta ZAINTZA pentsatzeko modu alternatiboak.

Deseraikitzea


Ahizpatasuna

Pertsonala
politikoa da



3. Bizitza iraunkorren eraikuntzan aurrera egiteko bitartekoak

INTERSEKZIONALITATEA



Deseraikitzea

Norbere burua ebaluatzeko ariketa, zeinaren bidez bizitza osoan zehar barneratutako jarrera matxistak desikasten, identifikatzen eta desagerrarazten saiatzen baita pertsona (Beatriz Serrano)¹⁰².

Testuinguru heteropatriarkal batean sozializatu garenez, gure jarrera, jokabide, pentsamendu eta ikuspuntuaren karga matxista izugarri handia da. Horiek guztiak identifikatzeko prozesua da deseraikuntza, identifikatu ondoren, desikasi eta zuzentzeko. Dekonstrukzioaren helburua da barneratutako balio patriarkalak (indar maskulinoa, indibidualismoa, lehiakortasuna, paternalismoa eta abar) auzitan jartzea, historikoki naturalizatuta dauden mikromatxismoak identifikatzea eta genero bakoitzean hegemonikoak eta unibertsalak balira bezala txertatu-

ta dauden kontzeptuak aztertzea. Etengabe eboluzionatzen ari den tresna kognitibo bat da, ez baitu emaitza zehatzik eskaintzen: mugarik gabeko aldaketa indibidual eta kolektiboko prozesu bat da, «ez baikara inoiz guztiz konturatuko zeharkatzen gaituzten ardatz PATRIARKAL guztiez»¹⁰³.

EKONOMIA SOLIDARIOAK bere antolakundeetan txertatuta dauden KAPITALISMO HETEROPATRIARKALAREN kontzeptu, praktika eta balioak deseraikitze lan egiten du, bultzatzen dituen ekimenen bidez.

Pertsonala politikoa da

Emakumeen atsekabea ez da egokitu gabeen aiene neurotikoa, emakumeak sistematikoki menderatzen, esplotatzen eta zapaltzen dituen egitura sozial batek eragindako erantzuna baizik (Heidi Hartmann)¹⁰⁴.

«Pribatua politikoa da» moduan ere ezagutzen da feminismoaren bigarren olatuak erabili zuen aldarrikapen hori. Esaldi horrek azalera ekarri nahi ditu esperientzia pertsonalaren eta egitura sozial eta politiko handien arteko lotura, hau da, emakumeen bizipen pertsonalen eta menderatuak dauzkan sistema patriarkalaren arteko lotura. Gai «pribatu» edo «sozialak» eztabaida edo analisi politikoaren menpe jartzea dakar, oro har, eta emakumeen zapalkuntzaren izaera sistemikoaren berri ematea.

Ekintza bakoitzak esanahi publiko potentzial bat dakar berekin, eta konturatzea lotura estua eta dinamikoa dagoela esparru publikoaren eta pribatuaren artean. Horri esker, botereari buruzko analisisa zabaldu eta tradizionalki gogoetagaiztat hartu ez diren esparruetara eramán dezakegu. «Bikotearen barruko INDARKERIA tortura bezain politikoa dela ulertzen laguntzen digu, adibidez, eta, torturak bezala, status quoa iraunarazteko eginkizuna duela. Beste era batera esanda, emakume guztiok menperatuta eta zapalduta edukitzeko baliotzen dio INDARKERIA patriarkatuari, nahiz eta oinperatze hori modu desberdinetakoa izan daitekeen»¹⁰⁵. Horrenbestez, emakumeek bizipen pertsonal gisa jasaten dituzten diskriminazio, bazterketa eta INDARKERIA emakume guztiei gizatasuna ukatzen dien sistema baten emaitza gisa ulertzen ditu, eta ez zuzenean jasaten dutenei soilik dagokien arazo indibidual gisa. Konponbide politikoak eskatzen dituen arazo politiko bat da, beraz.

EKONOMIA FEMINISTAK ekonomia kapitalistak berezkoak dituen zenbait alderdi dakartza EKONOMIA SOLIDARIOAREN eztabaida eta praktikara: LANAREN BANAKETA SEXUALA eta produkzioaren eta erreproduzioaren arteko bereizketa¹⁰⁶, adibidez. Horrekin batera, esparru pribatukotzat jo izan diren gaiak sartu ditu agendan, hala nola INDARKERIA MATXISTA edo ZAINZAREN KRISIA.

EKONOMIA FEMINISTAREN proposamen teorikoak garatzeko egokia den praktika ekonomiko alternatiborako espazio bat eskaintzen du EKONOMIA SOLIDARIOAK. Gauzak egiteko modu berriei esperimintatzeko laborategi bat, asko erraztuko lukeena emakumeek soldatapeko LAN duina edukitzea, antolatze modu ez hain hierarkikoak garatzea eta LANA antolatze modua malgutzea. Edonola ere, egitura ez hain hierarkiko eta horizontalagoak ezartzen baditugu, baina egitura horiek belaunaldien arteko desberdintasunetan eta harreman HETEROPATRIARKALETAN oinarritzen jarraitzen badute eta esparru pribatuan esku hartzen ez badugu, gizonok eta emakumeok bititza mantentzeko dugun erantzukizuna onartuta, potentzial horiek guztiak emakumeentzako tranpa bat izan daitezke, azkenean. Gerta daiteke EKONOMIA SOLIDARIOA emakumeen BEHAR PRAKTIKOAK asetzeko espazio bihurtzea eta espazio hobek eta erosoagoak eskaintzea egun dituzten lanaldi bikoitz eta hirukoitzak hobeto uztartzeko, baina ez izatea emakumeen eta gizonen arteko BOTERE-HARREMANAK eta BERDINTASUN EZA eraldatzeko inolako ahalmenik.

Interseksionalitatea

Zapalkuntza-molde ugari bat egin eta menderakuntza-matrizea osatzen dute. Identitateak elkar gainjartzen diren bezala, gauza bera gertatzen da boterearen egiturazko desoreka iraunarazten duten hierarkiekin (Patricia Hill Collins) ¹⁰⁷.


Generoa beste identitate batzuekin nola gurutzatzen den eta gurutzaketa horiek berdinik gabeko zapalkuntza- eta pribilegio-esperientziak nola sortzen dituzten aztertzen, ulertzen eta horri erantzuten laguntzen digun tresna analitikoa da interseksionalitatea. Gizarte-zientzien alorrean erabiltzen da gure gizarteetako zapalkuntza-eredu klasikoek —MATXISMOAK, arrazakeriak, homofobiak, klasismoak edota kapazitismoak¹⁰⁸ — elkarrengandik bereizita jarduten ez dutela azaltzeko. Eredu horiek elkarri eragiten diote eta zapalkuntza-sistema konplexuak sortzen dituzte.

Kimberlé Williams Crenshawek¹⁰⁹ sortu zuen kontzeptua 1989an, eta zera esan zuen hari buruz: gizabanako bakoitzak zapalkuntza bat pairatzeko edo pribilegio bat edukitzeko modua parte hartzen duen kategoria sozial ugarien araberakoa izango da. Adibidez, bi emakume beltzek esperientzia berbera bizitzen al dute azalaren kolore bera dutelako? Argi dago ezetz, argi dagoen bezala Kaliforniako goi-klaseko auzo batean bizi den emakumezko akademiko beltz heterosexualak ez duela zerikusi handirik izango Euskal Herrira migratu duen eta egoera administratibo irregularrean dagoen emakume beltz lesbiana batekin. Diskriminazioaren oinarriak diskriminazioa elikatzen duen eta zapalkuntzari eta pribilegioari lotutako bizipenak egituratzen dituen ingurune sozial, ekonomiko, politiko eta juridikoarekin lotzeko estrategia gisa balio digu interseksionalitateak. Azken

batean, agerian jartzen du kategoria sozial desberdinek nola sortzen dituzten era askotako zapalkuntza eta pribilegioak, elkarren artean gurutzatzen direnean.

Horrenbestez, identitate horiez jabetzea eta konbinatzean sortzen diren diskriminazioak aztertzea da azterketa interseksionalaren helburua. Bestela esanda, genero-azterketa egiteko ikuspegi anizkoitz bat da: ez ditu diskriminazioak emakume guztientzat orokortzen, kolektibo bat balira bezala, identitate bakoitzaren banakotasunak eta berezitasunak aztertzen baititu. Ikuspegi horri jarraikiz, identitateen konbinazioa ez dugu norberaren zama handitzen duen batura gisa ulertu behar, esperientzia zinez desberdinak sortzen dituen batura gisa baizik¹¹⁰.

Ezagutzen ditugun sistema ekonomiko AN-DROZENTRIKOetan emakumeek historian zehar jasan dituzten mendetako diskriminazioak analisi ekonomikoaren muinean kokatzea proposatzen du EKONOMIA FEMINISTAK. Ikuspegi hori pertsonen eta herrien arteko erlazio sozioekonomikoei dagokienez EKONOMIA SOLIDARIOAK defendatzen duen ekitate printzipioarekin lotu dezakegu erraz asko. «Horretarako, sistema sozioekonomikoan emakumeen eta gizonen nortasunak, bizi-baldintzak eta jarrerak zailtzen dituzten desberdintasunak gainjarri egiten direla kontuan hartu beharko dute jardun solidarioek»¹¹¹.



Ahizpatasuna

*Arerioak izaten irakatsi ziguten, baina aliatuak izatea erabaki genuen*¹¹².

Kapitalismo heteropatriarkalak emakumeei inposatzen dien lehiakortasun-ereduari aurre egiten dion «proposamen politikoa» izendatzeko sortu zuen *ahizpatasuna*¹¹³ terminoa mugimendu feministak. Emakumeen arteko ahaidetasunari egiten dio erreferentzia eta itun politikoa baten bidez gauzatzen da; itun horren arabera, emakume bakoitzak beste guztien aginpidea aitortzen du eta denok onartzen dugu elkar solaskide moduan eta berdintasunean desberdin gisa. Gizakien baliokidetasun-printzipioan oinarritzen da, eta gizakien arteko desberdintasunen elkarrekidetasun-printzipioa ere hartzen du aintzakotzat¹¹⁴.

Emakumeen arteko aliantza, lankidetzak eta enpatia bultzatzen ditu, eta sareak sortzea

botere-egiturak aldatzeko. Eraldatzailea da, sistema kapitalistak emakumeen arteko lehiakortasunaren logikaz baliatuz haien arteko banaketa lortu duela ikusten baitu, horrekin botere handiagoa ematen zaielarik gizonari.

EKONOMIA SOLIDARIOAK ere ildo beretik egiten du lan, elkarren arteko lankidetzak, elkarrekidetasuna eta LAN kolektiboan oinarritutako funtzionamendua bultzatzen baitu, ondasun komunaren gainera norberaren onura lortzeko lehia bultzatzen duen individualismo kapitalistaren aurrean. EKONOMIA SOLIDARIOAN «elkartasunak» esan nahi duenaren pareko esanahia du «ahizpatasunak» feminismoarentzat: errotikako aldaketak lortzeko aliantzak bultzatzen dituen praktika eraldatzaile bat da.

Erantzunkidetasuna


*Bizitzako premiei modu komunitarioan erantzuteko erantzukizun, eskubide, betebeharrak eta aukerak hala emakume, gizon eta pertsona ez-bitarren nola pertsonen eta gizarteko eragile desberdinen artean modu ekitatiboan banatzean datza erantzunkidetasuna (MARES Madrid)*¹¹⁵.

Bi pertsona edo gehiagoren artean partekatutako erantzukidetasunari erreferentzia egiteko erabiltzen da terminoa. Modu horretara, betebeharrak edo konpromisoak ez ditu pertsona bakar batek hartu behar bere gain. Familiaren barruan edo esparru pribatuan etxeko lanak eta ZAINTZA-lanak historian zehar soilik emakumeei egotzi izan zaizkiela ikusarazteko eta salatzeke erabiltzen da terminoa, norma-

lean. Erantzunkidetasun-eredu batean aurrea egiteko desoreka hori gainditu, eta gizonak eta erakundeak ere LAN horiez arduratzera bultzatu behar ditugu.

ELKARMENDEKOTASUNA eta EKOMENDEKOTASUNA gure biziraupenaren oinarri materialak dira EKONOMIA SOLIDARIOArentzat eta, horri jarraikiz, ZAINTZAK berebiziko garrantzia

ZAINITZA-LANEN ERANTZUKIZUNAREN BANAKETA¹¹⁶



dauka gure bizitzaren iraunkortasunean. Elementu horiek guztiak eskubideak dira, ez pribilegioak. Zainduak izateko eskubidea bermatzeko, gizarte osoak hartu behar du bere gain zaintzeko erantzukizuna. Horixe da ZAINTZAREN antolakuntza sozialarekin esan nahi duguna.

EKONOMIA SOLIDARIOko enpresa, erakunde eta sareek ZAINTZAREN antolakuntza sozialean lagundu nahi dute. Bizitzaren iraunkortasunarekin erantzukide diren praktikak ga-

ratzen dituzte horretarako, zentzu zabalean, hau da, ingurumenaren eta komunitatearen zaintzaren dimentsioa ere aintzat hartuta. Ildo beretik, bizitzaren iraunkortasunarekin erantzukide diren praktikak garatzeko garaian aintzakotzat hartu behar da ELKARMEN-DEKOTASUN-printzipioa ere, hau da, agerian jarri behar dira gaiarekin zerikusia daukaten gainerako eragileekin (erakunde publikoak, herritar antolatua, etxe eta familiak eta komunitateko sareak) ezarri beharreko aliantza eta baliabideak.


Agentzia-ahalmena

*Agentzia zera da: antolakuntza sozioekonomiko ekitatiboagoa eta guztiz demokratikoa eraikitzeko xedez gure borondateak eta ekintza elkartzen ditugunean, pertsonok eta erakundeek jarduteko, elkarri eragiteko eta sormen askatzaileko espazioak sortzeko daukagun ahalmena*¹¹⁷.

Gizartea, kultura edota gure testuingurua eraldatzera bideratutako jarduera batzuetatik abiatuta, pertsonok gure testuinguru historikoekin eta egoera konkretuekin jarduteko dugun gaitasuna da agentzia, beraz. Elkarre-ragin horrek ez du zertan kontzientea edo nahita egindako izan. Gaitasun hori kolektiboa ere izan daiteke, «agentziak ekintza batzuk beste pertsona batzuekin eta beste pertso-na batzuen kontra koordinatzeko, proiektu kolektiboak bultzatzeko, besteak konben-tzitzeko edo zerbait egitera behartzeko ahalmena baitakar berekin»¹¹⁹.

EKONOMIA SOLIDARIOaren ezaugarrietako bat da agentzia, eta feminismoak eta proposamen ekologistak uztartzearekin du lotura. Proiektuak elkartzeak eta (gauzak hautemateko, adie-razteko eta indibidualki nahiz kolektiboki bi-zitzeko gure ohiko lekuak aldatuz) bizi garen mundua benetan aldatzeko gai garela ulertzeak ematen digun indar kolektiboa erakusten la-guntzen du.

Pertsonok eta erakundeok ekintza bultzatzeko dugun gaitasuna da agentzia-ahalmena. Erre-sistentzia kolektiboa gauzatzeko eta boterea gizartean banatzeko ereduari aurre egiteko modu bat ere bada. Babes- eta zaintza-sareen



eta beren baitan hartzen gaituzten azpiegitura materialen laguntza behar dutela dioten gorputzak agertzeko espazio gisa ematen da aditzera¹²⁰.

Agentzia kontzeptuak funtsezko bi ideia dauzka oinarritzat: ekintzak proiektu propioak edo kolektiboak lortzera bideratuta daudela, eta BOTERE-HARREMAN guztiak ezegonkorrak direla eta erreproduzitzeko premia dutela. Horrek esan nahi du aldatu egin daitezkeela.

Sherry Ostnerrek bi agentzia-mota bereizten ditu: norberaren proiektuetara zuzendutakoa eta boterera zuzendutakoa. Txanpon beraren bi aldeak dira biak ala biak. Gure ingurune sozialetan (senideekin, lagunekin, gertukoekin, auzokoekin eta abar) sortzen ditugun elkartasun-harremanei buruz hausnartzeko aukera ematen digu horrek, eta tresna berriak ematen dizkigu botereari eta gure helburu propio

eta kolektiboari dagokienez. Sare sozial horren barruan, EKONOMIA SOLIDARIOko erakundeak sortzea eta garatzea ahalbidetzen dute elkartasun-harremanak. Edonola ere, bizi garen sistema soziokultural BERDINTASUNIK GABEkoetan lehian eta mendekotasunean/menderakuntzan oinarritutako erlazioek daukaten eraginari buruzko gogoeta ere aurkezten digu egileak. Horrela, bada, ezin dugu alde batera utzi gizakien arteko erlazioen izaera konplexua, norberaren eta kolektiboaren emantzipazioan oinarritutako elkartasunezko proiektuak sortzen saiatzen garenean ezin diogulako muzin egin konplexutasun horri. Gure erakundeetan praktika androzentriko, sexista eta arrazisten erreprodukzioari aurre egiteko aukera emango diguten estrategiak diseinatzera behartzen gaitu horrek, bizi garen errealitatea eraldatzeko daukagun indarretik abiatuta.

Genero-premia praktikoak eta genero-interes estrategikoak

Genero-interes terminoak honako hau adierazten du: emakumeek —gizonek ere bai— euren gizarte-kokapenagatik gara ditzaketen interesak, euren genero-ezaugarrien arabera. Estrategikoak edo praktikoak izan daitezke: bakoitza bere modura sortzen da eta bere ondorioak dakartzko emakumeen subjektibotasunari (Maxine Molyneux)¹²¹.

Genero-premia praktikoak «emakumeek eta gizonek testuinguru jakin batean dituzten berehalako premia dira: jatekoa, arropa... Premia horiek asetzak ez du auzitan jartzen LANAREN BANAKETA SEXUALA edo emakumeek gizartean daukaten menpeko eginkizuna»¹²², baina zerikusia du gizonak eta emakumeak zeregin jakin batzuekin lotzen dituzten egungo rolekin. Populazio jakin baten behar praktikoak konpontzeak ez dakar berekin populazio horren egoera soziala edo BERDINTASUN EZA aldatzea, halako hobekuntzek behar zehatzei erantzuten baitiete, epe laburrera begira¹²³.

Genero-interes estrategikoak epe luzera begira ulertzen dira, gizonezkoen nagusitasuna eta pribilegioa bermatzen duten egituretan egin beharreko aldaketa sakonekin baitute erlazioa¹²⁴. Emakumeek «gizartean duten menpekotasun-egoeraren ondorioz dauzkaten beharrei egiten diete erreferentzia, eta halakoei erantzuteko beharrezkoa izango da emakumeak epe luzera begira AHALDUNTZEA. Emakumeek edo gizonezkoek gizartean eta elkarrekiko daukaten posizioa edo estatusa hobetzeko behar dutena ordezkatzan dute»¹²⁵.

Laburbilduz, zera dira emakumeen behar praktikoak: alde aurretik finkatutako zenbait zama eta betebeharrak sozialen arduradun gisa dagozkien ROLAK betetzetik eratorritako beharrak. Gertuko senideekin eta tokiko komunitatearekin dute zerikusia, nagusiki. Interes estrategikoak, berriz, ez datoz emakumeek beren betebeharrak tradizionalak betetzeko egiten dituzten ahaleginetatik, baizik eta gizonezkoen nagusitasun- eta pribilegio-egiturak gizartearen inposizioak direla jabetzen direlako geroz eta gehiago eta, beraz, aldatu daitezkeela ulertzen dutelako.

Behar praktikoak konpontzea ezinbestekoa da interes estrategikoak lantzeko, eta alderantziz. Dena den, eraldaketarako potentziala garatu egiten da behar praktikoak interes estrategiko bihurtu ahala. Alde horretatik, EKONOMIA SOLIDARIOAK behar praktiko bat konpontzen du emakumei lan-baldintza duinak eta malgutasun handiagoa bermatzen dienean lan-mundura sartzeko garaian, antolakuntza-formula autogestionatuak bultzatuz haien artean. Baina, horrekin batera, pribilegio-egiturak eraisten eta antolakundeen barruan logika PATRIARKALAK hausteko aldaketak bultzatzen ez badira, ez du genero-interes estrategikoak konpontzen lagunduko.

Genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketa

Jardun horiek ekarriko dute gaur egun dauden egiteko eta pentsatzeko moduak aldatzea, gertatzen diren genero-desberdintasunak desagerrarazteko erakundearen funtzionamendu-eremu orotan: estrategiak, egiturak, lan-sistemak, politikak, erakunde-kultura eta abar (Eusko Jaurlaritza)¹²⁶.

Euskadiko elkartasunaren eta nazioarteko lankidetzaren esparrutik sortu zen termino hori. 2008an, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzarako Zuzendaritzak¹²⁷ Espainiako Estatuan aitzindaria izango zen dekretu bat pres-tatu zuen Natalia Navarrokekin batera, euskal erakundeetan halako prozesuak bultzatzeko. Diagnosi- eta ikaskuntza-prozesu horiek antolakundearen kultura jartzen dute analisi eta go-goeten erdigunean, eta bi unetan egituratzen dira: alde batetik, diagnostia egiten da eta, bestetik, ekintzak planifikatzen dira.

Genero-ikuspegiari dagokionez desorekak dituzten antolakundeek eragin desorekatua izaten dutela hartzen dute abiapuntutzat prozesuok. Eta horri aurre egiteko, emakumeek eta gizonek antolakundeetan duten egoeraren eta posizioaren analisitik harago joateko antolakundeei buruzko azterketa integral eta zabalak egitea proposatzen dute¹²⁸. Azterketa horiek bi helburu izaten dituzte, gutxienez. Lehenik eta behin, «gakoa ez da ikusten den hori berrikustea edo eraldatzea, hau da, produktuak eta diskurtsoak;

aitzitik, DESBERDINTASUNA sortzen duten egiturak, dinamikak eta balioak eraldatu nahi dituzte. Beraz, berrikuspenaren muinean galdera hauek ditugu: nola egiten ari garen gauzak; nortzuk egiten ari garen; zer helbururen arabera diren egiteko modu horiek; eta nola eralda ditzakegun horiek eta geure burua. Bigarrenik, aipatutako azterketa integralak, prozesu horietan “konbentzitutako” edo “generoko gaietan” lan egiten duten pertsonak ez ezik, talde plural baten partaidetza sustatzea ere eskatzen du»¹²⁹.

Bizigarri izena aukeratu du REAS Euskadik, genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketa lortzeko bultzatu duen prozesua izendatzeko. Feminismoa antolakundearen erdigunean kokatzeko konpromiso politiko garbia. Silvia Pirisek dioen bezala, hori ezinezkoa izango zen sareko emakume feministen talde batek alde aurretik egindako lanik gabe. Horietako asko ekoSolFemeko¹³¹ kideak dira, eta feminismoaren eta EKONOMIA SOLIDARIOAREN arteko loturak ehuntzen aritu dira hainbat proiekturen bidez.

Ekintza positiboa

Pertsonak eta talde sozialek berdinak izateko eskubidea dute desberdintasunak beste inoren azpian uzten dituenen, eta desberdinak izateko, berdintasunak haien berezitasunak ezabatzen dituenen (Boaventura Sousa Santos)¹³².

Diskriminazio-motaren bat jasan edo jasaten duten populazio-multzoen bizi-baldintzak eta aukerak hobetzera zuzendutako neurriak eta politikak deskribatzeko erabiltzen da ekintza edo diskriminazio positiboa kontzeptua. Diskriminazio hori murriztea eta berdintasun handiagoa lortzea da halako neurrien helburua, hain zuzen ere.

Halako politikak oso hedatuta daude, baina diskriminazioaren aurkako neurriak izendatzeko diskriminazio terminoa erabiltzeak eztabaida pizten duenez gero, «ekintza positiboko politikak» eta tankerako terminoak erabili ohi dira, eta guk ere hori lehenetsi dugu gure proposamen honetan.

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunari dagokionez, politika horiek 1980ko hamarkadan hasi ziren hedatzen eta orokor bihurtzen, bereziki Europan. 1970eko hamarkadan emakumeen sarbide-berdintasuna bultzatu zen, batez ere legeen alorreko aldaketen bidez. 1980ko hamarkadan, berriz, emaitzen berdintasuna bultzatu zen, ekintza positiboko politiken bidez. Horretarako, emakumeak talde sozial gisa desabantailan zeudela ikusita, Estatuaren esku-hartze aktiboa eskatu zen, emakumeei esparru publikorako sarbidea bermatzeko, historikoki handik baztertuak izan zirenez gero¹³³.

Eztabaida bizia dago era horretako neurriek emakumeei berdintasuna lortzen lagundu ote

dieten inguruan. Izan ere, 90eko hamarkadatik aurrera, politika horien norabidea aldatu eta gender mainstreaming edo GENERO-IKUSPEGIA ZEHARKAKO BIHURTZEKO bidea aukeratu zen. Halakoek ere mugimendu feministaren kritika zorrotzak jaso dituzte.

Begi bistakoa denez, hala ikuspegi batzuek nola besteek muga nabarmenak dituzte alor politiko, ekonomiko, sozial eta kulturean errotikako aldaketa sakonak egitea eskatzen duen arazo horri aurre egiteko. Dena den, ikuspegi guztiek dituzte neurri interesgarriak, eta oraindik ere beharrezkoak dira emakumeek jasaten duten GENERO-ARRAKALAK eta BERDINTASUN EZA murriztu ahal izateko.

Esparru ekonomikoari gagozkiolarik, ekintza positiboko politikak lan-esparruan garatu dira nagusiki, era askotako tresnen bidez: trebakuntza-programak, ordutegiak egokitze-ko eta bateratzeko neurriak, kontrataziorako erraztasunak (adibidez, kontratazio publikoetan klausula bereziak jarri edo enpresa pribatuetan emakumeak kontratazko pizgarriak eskainiz), historikoki emakumeek egindako lanetan gizonak ere aritzea bultzatzeko programak, enpresetako kudeaketa-organoetan parte hartzeko kuotak eta abar. Sozial eta solidario gisa definitzen den ekonomia baten artean berezia jarri beharko luke halako neurrietan eta areago jo beharko luke, izaera eraldatzailea emanez, bere eguneroko jardueretan aldaketa eraginkorrak lor daitezten.

Genero-zeharkakotasuna

Aurreikusten den edozein ekintzak (lege, politika edo programak barne) emakumeentzat eta gizonentzat arlo eta maila guztietan eragingo dituen ondorioak ebaluatzeko prozesua da genero-zeharkakotasuna. Edozein esparru politiko, ekonomiko edo sozialetan politikaren bat edo programaren bat diseinatzeko, aplikatzeko, haien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko garaian emakumeen eta gizonen kezkek aintzakotzat hartzeko estrategia bat da, biek ala biek onura bera izan dezaten, bien arteko ekitate eza betikotu gabe. Genero-berdintasuna lortzea da azken helburua (Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseilua)¹³⁴.

Mainstreaming edo genero-ikuspegiaren integrazio (GII) ere esaten zaio. 1995ean definitu zuten formalki, Pekinen, Txinako hiri hartan egin zuten Emakumeei buruzko IV. Mundu Konferentzian eta Pekineko Ekintzarako Plataforma deiturikoan aipatu zuten. Prestatzen den edozein ekintzak (lege batek, politika edo programa zehatz batek) edozein arlotan eta maila guztietan emakume nahiz gizonentzat dauzkan ondorioak baloratzeko prozesua da. Esparru politiko, ekonomiko, kultural eta sozial guztietako politikak eta programak prestatzeko, abian jartzeko, haien jarraipena egiteko edota ebaluatzeko garaian gizonen eta emakumeen kezkek eta esperientziak aintzat hartuak izateko garatzen den estrategia bat da, batzuen nahiz besteen onerako izan daitezen, BERDINTASUN EZA betikotu gabe.

Arlo guztietan aukera-berdintasuna, orekatzen duen EKINTZA POSITIBOA eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna bermatzeko estrategia bat da, jarduera guztietan generoa aintzakotzat hartzea bilatzen duena: politikak formulatzean, ikerketetan, baliabideak esleitzean eta abar. Politika, programa eta proiektuen maila guztietan eta programazio-

zikloen fase guztietan (diseinatzean, planifikatzean, gauzatzean, jarraipena egitean eta ebaluatzean) aplikatu behar da estrategia hori, eta, osagarri gisa, emakumeei eta gizonei (edo oraindik BERDINTASUN EZA nabarmena dagoen esparruei) zuzendutako ekintza espezifikoak egin behar dira. Aldaketa instituzionaleko prozesuetan, aurrekontuak prestatzean, ikuskaritza eta abarretan ere aplikatu behar da hizpide dugun estrategia.

Genero-ikuspegia EKONOMIA SOLIDARIOAREN prozesuetan zeharkako bihurtzeak PATRIARKATUAREN mekanismoak eta horiek emakumeen eta gizonen eguneroko bizitzan duten eragina ulertzen laguntzen digu, bai eta emakumeek AHALDUNTZE sozioekonomikoko prozesuan aurkitzen dituzten oztopoak gainditzeko mekanismoak diseinatzen ere. Genero-ikuspegia duen EKONOMIA SOLIDARIOA «berdintasunaren inguruko gaiak EKONOMIA SOLIDARIOAREN baliio eta praktiketara, jarduera ekonomiko bat sortzeko etapa guztietan, txertatzen dituen lan-metodologia bat da. Kapitalismoa deuseztatzeko nahiari eusten dio (...) eta EKONOMIA FEMINISTAREN gogoeta eta kontzeptuak eskaintzen dizkio borroka horri»¹³⁵.

Ahalduntzea

Pekineko Emakumeen Mundu Konferentzian zabaldu zen terminoa, erabakiak hartzeko prozesuetan eta boterea eskuratzeko garaian emakumeen parte-hartzea handitzeko ekimenak izendatzeko. Gaur egun, beste dimentsio bati ere egiten dio erreferentzia: emakumeek bakarka nahiz kolektiboki daukaten boterearen gaineko kontzientziarioari. Horren bidez, emakumeek pertsona gisa daukaten duintasuna berreskuratzen dute, beren buruari buruzko irudia eta beren eskubide eta gaitasunei buruzko sinesmenak aldatzen dituzte eta aurre egiten diete beren gutxiagotasun-sentimenduei (Natalia Navarro)¹³⁶.

Ahalduntze-prozesuaren bidez, ausardia lantzen, autoestimua indartzen eta indarra erakusten irakasten zaie emakumeei eta gizonetzkoen menderakuntza hegemonikoaren biktima diren kolektiboei, alderdi horiek guztiak ez baitituzte garatu, zapalkuntzaren eta ikusezintasunaren ondorioz. Gure bizi-baldintzak geure ekintzen bidez hobetzeko boterea eta independentzia lortzea da kontua ¹³⁷.

Asko dira ahalduntze-prozesuetan esku hartzen duten indarrak. «Barne-botereak», adibidez, naturalizatutako menderakuntza-posizioaz bestelako egoerak irudikatzen gaitasunari egiten dio erreferentzia. Norberak bizi izandako zapalkuntzaren edo pribilegioaren esperientziaren oinarrian zeuden sinesmen eta usteak zalantzan jartzea dakar, beraz. «Halakoen arteko botereak» edo «halakoekiko botereak» diskriminazio indibidualen esperientzia desberdinen artean oinarri komun bat aurkitze-

ko lanarekin du zerikusia, interes kolektiboak artikulatzeko eta beren aldarrikapena elkarrekin bideratzeko ahaleginarekin. «Halakotarako botereak», azkenik, norbere burutik eta norberaren esperientziatik abiatuta ekarpenak egiteko trebakuntzarekin, gaituntzarekin eta gaitasun berriak eta konfiantza eskuratzearrekin du lotura.

EKONOMIA SOLIDARIOAK autogestioan eta elkarrekikotasunean oinarritutako alternatiba ekonomikoak garatzen ditu pertsonen ahalduntzea bultzatzeko. EKONOMIA FEMINISTAK, bestalde, emakumeen ahalduntzea sustatzen du, genero-ikuspegia zapalkuntza sozial, ekonomiko eta politikoko arlo guztietan zeharkako bihurtuz. Antolakundeei dagokienez, zehazki, «antolakunde bateko emakumeen ahalduntze indibidual eta kolektiboa sustatzen duten identitateak eta praktika feministak eraikitzen eskuzkoak bultzatzen dira»¹³⁸.

Oharrak

- 1/ Silvia López (2019): Los cuerpos que importan en *Judith Butler*, Las Imprescindibles bilduma, Dos Bigotes arg., Madril.
- 2/ Yayo Herrero online emandako hitzaldia, Rosa Sensat elkarteak antolatua: «COVID-19aren ondorengo larrialdiari aurre eginez: erronkak eta irakaspenak». Eskuragarri hemen: <https://vimeo.com/408796975>
- 3/ Márquez Alameda, Ángela (2020): «Lo que no se nombra no existe y lo que se nombra construye realidades», *Question Femenina* webgunean. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3dMMsSe>
- 4/ Jubeto, Yolanda eta Mertxe Larrañaga (2014): «Economía solidarioa izango da, feminista bada. Economía feministak ekonomia solidarioaren eraketan egindako ekarpenak», in ZENBAITEN ARTEAN: *Bizitzaren iraukortasuna. Economía Solidario, Feminista eta Ekologikoan oinarrituz eginiko ekarpenak*, REAS Euskadi, Bilbo, 24. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2Ykkn76>
- 5/ REAS Euskadi (2019): *Bizigarri. REAS Euskadiren genero-ekitatearen aldeko plana 2018-2022*, REAS Euskadi, Bilbo. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2VvImHX>
- 6/ Economía Eraldatzaileen Munduko Gizarte Foroko Bat-egite Feminista (2020): «Economía feminista eraldatzen ari den mundu baterako». Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2Vvdbwx>
- 7/ Hemen aipatua: Murguialday Martínez, Clara (2006): *Empoderamiento de las mujeres: conceptualización y estrategias*, Gasteizko Udala, 4. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2YQrkGS>
- 8/ AAsociadas por lo Justo-JASS (2012): *Diccionario de la Transgresión Feminista*. Lehen argitaldaria, II. liburukia, 5. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2YK9rcl>
- 9/ Jubeto, Yolanda eta Mertxe Larrañaga (2014), *op. cit.* 15. or.
- 10/ Europako Kontseilua (2018): *Estrategia de Igualdad de Género 2018-2023*, Gobierno de España, Ministerio de Asuntos Exteriores de Cooperación, Oficina de Interpretación de Lenguas, Madril, 9. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2BuvjQm>
- 11/ ZZorrilla Pantoja, Bárbara (2014): «¿De qué forma nos influyen los roles de género?», *Generando Igualdad* webgunean.
- 12/ De Beauvoir, Simone (2019): *Bigarren sexua*, Elkar, Donostia
- 13/ Berbel, Sara (2008): «Sobre sexo, género y mujeres», in Beatriz Gamba, Susana (koord.): *Diccionario de estudios de Género y Feminismos*, Biblio, Buenos Aires. Eskuragarri hemen: <http://www.mujiresenred.net/spip.php?article33>
- 14/ 2006ko uztailaren 5eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/54/EE Zuzentaraua, gizonen eta emakumeen artean tratatu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko, enpleguarekin eta okupazioarekin zerikusia duten gaietan (testu bategina). Eskuragarri hemen. Disponible en: <https://bit.ly/3iktwhj>
- 15/ Millet, Kate (2010): *Política sexual*, Feminismos bilduma, Cátedra, Madril.
- 16/ Maffia, Diana (2008): *Contra las dicotomías: feminismo y epistemología crítica*, Seminario de Epistemología Feminista, Facultad de Filosofía y Letras, Universidad de Buenos Aires.
- 17/ Pérez, Eulalia (2008): «¿Qué diferencia hay entre el machismo y el sexismo?», *Mujeres en Red* webgunean. Eskuragarri hemen: <http://www.mujiresenred.net/spip.php?article1456>
- 18/ Sánchez, Ana, Castro Bugarín, Javier eta Alberto Domingo (2019): «Breve diccionario de feminismo para el siglo XXI», *Eldiario.es*. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3dLjfaI>
- 19/ Gómez, Lula (2015): «Micromachismos, un machismo silencioso y sutil», *Tinta Libre*. Eskuragarri hemen: <http://www.mujiresenred.net/spip.php?article2190>
- 20/ Beatriz Gimeno aipatua, *Pikara Magazine* aldizkariaren glosario feministako Heteronormatibitatea sarreran. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3gode5t>
- 21/ Pérez Orozco, Amaia eta Sara Lafuente Funes (2019): «¿Es la heterosexualidad obligatoria la política sexual del capitalismo?», in *Revista con la A*, 64. zk. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2YJP7bl>
- 22/ Lerner, Gerda (1986) *Pikara Magazineren Glosario Feminista* aipatua. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2TlurTv>
- 23/ Federación Catalana de Organizaciones por la Justicia Global (2018): *Sembrando cuidados para cultivar cambios. Perspectiva feminista y ética del cuidado. Guía de autodiagnos para organizaciones*. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2V0scdn>
- 24/ Fontela, Marta (2008): «¿Qué es el patriarcado?», in Beatriz Gamba, Susana (koord.): *Diccionario de Estudios de Género y Feminismos*, Biblio, Buenos Aires. Eskuragarri hemen: <https://n9.cloz555>

- 25/ Navarro, Natalia (2004): «Cambiar el chip. Revisión de algunos conceptos para poder impulsar cambios organizacionales en pro equidad de género», in Tamayo, Giulia, Ana Delso, Irene López, Natalia Navarro eta Ana Lydia Fdez-Layos: *Género en la cooperación al desarrollo. Una mirada a la desigualdad*, ACSUR Las Segovias, Madril, 127. or.
- 26/ De la Fuente, María (2015): «Ideas de poder en la teoría feminista», in Revista española de ciencia política, 39. zk. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2KLyR1F>
- 27/ Federación Catalana de Organizaciones por la Justicia Global (2018), *op. cit.*
- 28/ Federación Catalana de Organizaciones por la Justicia Global (2018), *op. cit.*
- 29/ Navarro, Natalia (2004): *op. cit.* 59. or.
- 30/ Carrasco, Cristina (2014): «Economía, lanak eta bizitzaren iraunkortasuna», in ZENBAITEN ARTEAN (2014): *Bizitzaren iraunkortasuna. Economía Solidario, Feminista eta Ekologikoa oinarrituz eginiko ekarpenak*, REAS Euskadi, Bilbo. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2Ykkn76>
- 31/ Mugarik Gabe (2012): *Contra todas las violencias machistas*, Mugarik Gabe, Bilbo, 8. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/31umBwb>
- 32/ Oreka Sarea (koord.) (2016): *Indarkeria kontsumitzen dugu? Indarkeria matxisten eta kontsumoen inguruan ezagutza sortzeko eta ikasteko prozesu kolektiboa*, SETEM Hegoa Haizea, Gasteiz, 48. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3eMaOWP>
- 33/ Hemen oinarrituta: De la Cruz, Cristina (2014): «Finantza etikoaren izaera politikoaren eta emantzipazio ahalmenaren gaineko irakurketa feminista», in ZENBAITEN ARTEAN (2014): *Bizitzaren iraunkortasuna. Economía Solidario, Feminista eta Ekologikoa oinarrituz eginiko ekarpenak*, REAS Euskadi, Bilbo, 83.-86. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2Ykkn76>
- 34/ OIT (2018): *El trabajo de cuidados y los trabajadores del cuidado para un futuro con trabajo decente* (Resumen Ejecutivo), OIT, Geneva, 1. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/31BqgYR>
- 35/ Carrasco, Cristina, Borderías, Cristina eta Teresa Tornos (arg.) (2011): *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*, Los libros de la catarata, Madril.
- 36/ Durán, M. Ángeles (2018): *La riqueza invisible del cuidado*, Universitat de València, 106.-123. or.
- 37/ Pérez Orozco, Amaia (2009): «Cadenas globales de cuidados: preguntas para una crisis», in Diálogos. Monográficos de divulgación del pensamiento feminista, 1. zk., Hegoa eta ACSUR Las Segovias, Madril, 9. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2VDxzeQ>
- 38/ Euskaltzaindiaren Hiztegia. Eskuragarri hemen
- 39/ Varela, Nuria (2013): «La ética del cuidado», Nuria Varelaren blogean.
- 40/ Hemen aipatua: Montse Aparicio (2017): «Dejar de ser heteropatriarcal», Tribuna Feminista webgunean. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2BSXzfa>
- 41/ Harnecker, Marta (1985): *Los conceptos elementales del materialismo histórico*, Siglo XXI, Madril.
- 42/ Pikara Magazineren Glosario Feministako Kapitalismo heteropatriarkala sarreran aipatua. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2LPz7gp>
- 43/ Maraña González, Juan José (2016): «Vida independiente en transición a economías cooperativas», Foro de Vida Independiente y Diversidad foroaren webgunean. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/31sE3kr>
- 44/ In «Indicadores de Género». Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2YIf0rZ>
- 45/ Adibidez, jarduera-tasari dagokion genero-arrakala nabarmen murriztu da azken hamarkadetan.
- 46/ De la Rica, Sara; Gorjón, Lucía eta Ainhoa Vega (2019): *Genero-arrakalak Euskadiko lan-merkatuan*, Iseak Fundazioa, Emakunde. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2ys14I9>
- 47/ Auditoria Soziala egiteko prozesuaren bidez, antolakundeek beren eraginkortasun soziala eta jokatutako etikoa ebaluatu dezakete beren helburuekin alderatuta. Ebaluazioaren bidez, beren emaitza sozial eta solidarioak hobetu, eta haien berri eman diezaiakete beren jarduerarekin konprometituta dauden pertsona guztiei. 2020ko Auditoria Sozialaren datuak eskuratzeko (2019ko datuak): <https://bit.ly/2SxUTcl>
- 48/ Geuk egina.
- 49/ Federici, Silvia (2017): «Economía feminista entre movimientos e instituciones: posibilidades, límites, contradicción» in Carrasco, Cristina eta Carme Díaz (arg.) (2017): *Economía feminista. Desafíos, propuestas, alianzas*, Entrepueblos, Bartzelona. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2Y1KqQ0>
- 50/ «Entre el techo de cristal y el suelo pegajoso», Género y Economía webgunean. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3ghLMB>

- 51/ Piris, Silvia (2019) «Bizitzeko moduko erakundeak lortzeko bidean», in *Sortu, zaindu, bizi: praktika feministak ekonomia solidarioako erakundeetan*, Ekonomia Solidarioaren Paperak, 6. zk. REAS Euskadi, Bilbo. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2TlisVP52/>
- 52/ Geuk egina.
- 53/ «Entre el techo de cristal y el suelo pegajoso», Género y Economía webgunean. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3ghuLMB>.
- 54/ Navarro, Natalia (2004), *op. cit.*
- 55/ Piris, Silvia (2019), *op. cit.*
- 56/ 1197/2008 Dekretua, 2008ko azaroaren 25ekoa, lankidetzar-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen dituen, erakundeetan genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3dRb3FQ>.
- 57/ Navarro, Natalia (2004), *op. cit.*
- 58/ 40/2018 Dekretua, 2008ko martxoaren 27koa, lankidetzar-erakundeei eman beharreko laguntzak arautzen dituen, erakundeetan genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketako prozesuak sustatzeko. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3mf632h>
- 59/ Ideia hori hemendik atera dugu: Piris, Silvia (2019), *op. cit.*, 17. or.
- 60/ Navarro, Natalia (2004), *op. cit.*
- 61/ Navarro, Natalia (2004), *op. cit.*
- 62/ Viadero, María (2018): FEM_CHECK Egiaztatze feminista zerrenda bat, erabilerak eskuliburuarekin. Emaús Gizarte Fundazioa, Donostia. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2KqbwIM>
- 63/ Novo, Amparo, Cobo, Mercedes eta Luis Gayoso (2011): «La participación política de la mujer: un estudio de caso», in *Revista de Sociología y Política*, 19. lib., 38. zk.
- 64/ Novo, Amparo, Cobo, Mercedes eta Luis Gayoso (2011), *op. cit.*
- 65/ Pérez Orozco, Amaia (2015): «La sostenibilidad de la vida en el centro... ¿y eso que significa?», in *Mora Cabello De Alba, Laura eta Juan Escribano Gutiérrez (koord.): La ecología del trabajo. El trabajo que sostiene la vida*, Bomarzo, Albacete, 73. or.
- 66/ Herrero, Yayo (2011): «Propuestas ecofeministas para un sistema cargado de deudas», in *Revista de Economía Crítica*, 13. zk., 46. or.
- 67/ Carrasco Bengoa, Cristina (2014), *op. cit.*, pág 41.
- 68/ García Jané, Jordi (2017): *L'èconomia solidària en 100 paraules*, Icaria, Barcelona, 98. or.
- 69/ Pérez de Mendiguren, Juan Carlos; Etxezarreta, Enekoitz; eta Guridi, Luis (2009): *Ekonomia soziala, enpresa soziala eta ekonomia solidarioa: kontzeptu ezberdinak eztabaida berbera egiteko*, Ekonomia Solidarioaren Paperak, 1. zk., REAS Euskadi, Bilbo, 13. or.
- 70/ Selva Masoliver, Marta (2004): «Dia Internacional de les Dones», *Quaderns de l'Institut*, 1. zk. Institut Català de les Dones. Barcelona. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2CRv7ed>
- 71/ Bosch Pareras, Anna (2010): *Mujeres que alimentan la vida*. Selección de textos (1996-2008). Icaria, Barcelona.
- 72/ Mujeres en Red (2007): «Palabras y conceptos clave en el vocabulario de la igualdad», *Mujeres en Red webgunean*. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/38hMZL8>
- 73/ Himmelweit, Susan (2011): «El descubrimiento del trabajo no remunerado: consecuencias sociales de la expansión del término trabajo», in Carrasco, Cristina, Borderías, Cristina eta Teresa Tornos (arg.): *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*, Los libros de la catarata, Madrid, 199. or.
- 74/ Herrero, Yayo (2019): «Cuidar de la vida, cuidar las relaciones con el planeta», in Pérez Alonso, Edith, Antonio Girón eta Juan Luis Ruiz-Giménez (koord.): *Los cuidados. Saberes y experiencias para cuidar los barrios que habitamos*, Ecologistas en Acción, Libros en Acción, Madrid.
- 75/ Herrero, Yayo (2019), *op. cit.*
- 76/ Gopegui, Belén (2018): «Prólogo. Los días que no se van», in Pérez Alonso Edith, Antonio Girón eta Juan Luis Ruiz-Giménez (koord.): *Los cuidados. Saberes y experiencias para cuidar los barrios que habitamos*, Ecologistas en Acción, Libros en Acción, Madrid.
- 77/ Orozco, Amaia (2010): *Cadenas Globales de cuidado ¿Qué derechos para un régimen global de cuidados justo?*, UN-INSTRAW. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3gcDwXY>
- 78/ Jubeto, Yolanda, Larrañaga, Mertxe y Luisa Do Pintor Jubeto, Yolanda; Larrañaga, Mertxe eta Luisa Do Pinto (2019): «Lurraldean despatriarkeziaziorako eta deskolonizaziorako eta bizitza sarearen aldeko proposamen feministak», in Oianguren, María (zuz.): *Gatazka egoeran dauden lurraldeak. Bizi-alternatibak eraitzeko gakoak*, Gernika Sarea, Gernika Gogoratuz. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/31tX0It>
- 79/ EkoSolFem taldeak prestatutako barne-dokumentua (2020), ekonomia solidarioaren printzipioak ikuspegi feministatik berrikusteko.

- 80/ Pérez Orozco, Amaia eta Astrid Agenjo Calderón (2018): «Economía Feminista: viva, abierta y subversiva», in Armendáriz Echániz (koord.): *Visibilizar lo invisible*, Dossieres de Economistas Sin Fronteras, 29. zk. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3eG8pV1>
- 81/ CVandana Shivaren aipua, in *Ecologistas en Acción* (2017): *99 preguntas y 99 experiencias para aprender a vivir en un mundo justo y sostenible*. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3dMZoYi>
- 82/ *Ecologistas en Acción* (2017), *op. cit.*
- 83/ Herrero, Yayo (2014): «Bizitza on batekin bateragarria izango den ekonomia eraikitzeko ikuspegi», ZENBAITEN ARTEAN (2014): *Bizitzaren iraunkortasuna. Ekonomia Solidarioa, Feminista eta Ekologikoa oinarrituz eginiko ekarpenak*, REAS Euskadi, Bilbo, 57.-68. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2YkkN76>
- 84/ Herrero, Yayo (2014), *op. cit.*
- 85/ Herrero, Yayo (2014), *op. cit.*
- 86/ *Ecologistas en Acción* (2017), *op. cit.*
- 87/ Herrero, Yayo (2019), *op. cit.*
- 88/ Carrasco, Cristina (2017): «La economía feminista: un recorrido por la reproducción», *Ekonomiaz, Ekonomiari buruzko Euskal Aldizkaria*, 91. zk., 52.-77. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2BXDXjG>
- 89/ Lalngurumen-iraunkortasuna da *Ekonomia Solidarioaren Gutuneko 6* oinarrietako bat. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3g9hQwE>
- 90/ Jubeto, Yolanda eta Larrañaga, Mertxe (2014), *op. cit.*
- 91/ Kallis, Giorgos, Demaria, Federico eta Giacomo D'Alisa (2015): «Decrecimiento», in D'Alisa, Giacomo, Demaria, Federico eta Giorgos Kallis (arg.): *Decrecimiento. Vocabulario para una nueva era*, Icaria,artzelona, 38. or.
- 92/ WWF (2018): *Informe del Planeta Vivo*. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/31wckQa>
- 93/ Latouche, Serge (2009): *Pequeño tratado del decrecimiento sereno*, Icaria,artzelona, 45.-56. or.94/ Herrero, Yayo (2019), *op. cit.*
- 95/ Mellor, Mary (2000): *Feminismo y ecología*, Siglo XXI, Madril.
- 96/ Pascual Rodríguez, Marta y Yayo Herrero López (2010) Pascual Rodríguez, Marta eta Yayo Herrero López (2010): «Ecofeminismo una propuesta para pensar el presente y construir el futuro», *Boletín ECOS*, 10. zk., CIP-Ecosocial, FUHEM, Madril. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3ghmEzk>
- 97/ Jubeto, Yolanda eta Larrañaga, Mertxe (2014), *op. cit.*
- 98/ Porro, Álvaro (2016): «¿Qué son las economías transformadoras?», in www.opcions.org
- 99/ Testu hau «Diruaz eta merkatuz haratago: komunitatearen zerbitzura dauden ekonomiak» kapitulu dago oinarrituta, in Askunze Elizaga, Carlos (2019): *Gida didaktikoa. Ekonomia solidarioa: ekonomia eraldatu, gure mundua eraldatzeko*. Edukien proposamena, REAS Euskadi, Bilbo. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3idikmx>
- 100/ Bizigarri du izena REAS Euskadi 2015. urteaz geroztik bultzatzen ari den genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketako prozesuak. Prozesu horren lehen fasean diagnostikoa egin zuten eta bigarrean, plangintza. Horren guztiaren emaitza izan da Bizigarri 2018-2022, REAS Euskadiren genero-ekitatearen aldeko l. plana.
- 101/ Piris, Silvia (2019), *op. cit.*
- 102/ Serrano, Beatriz (2017): «Glosario feminista para principiantes», BuzzFeeden webgunean. Eskuragarri hemen: <https://bzfd.it/38ebpVw>
- 103/ Delgado, Lionel (2019): «Masculinidades: contra la deconstrucción masculina», El Saltore webgunean. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2CY7HUN>
- 104/ Hartmann, Heidi (1997): «The unhappy marriage of Marxism and feminism: Towards a more progressive unión», in Linda J. Nicholson (arg.): *The Second Wave: A Reader in Feminist Theory*, Routledge, New York, 100. or
- 105/ Facio, Alda (2013): *¿Por qué lo personal es político? Reflexiones a partir de un debate*, Asociadas por lo justo-JASS. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3cYDSjx>
- 106/ Nobre, Miriam (2015): «Ekonomia solidarioa eta ekonomia feminista: agenda baterako elementuak», in *Ekonomia Solidarioaren Paperak*, 4. zk., REAS Euskadi, Bilbo. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/31uZAsJ>
- 107/ Collins, Patricia Hill (2000): *Black Feminist Thought: Knowledge, Consciousness and the Politics of Empowerment*, Routledge, New York.
- 108/ TANitzasun funtzionalari lotutako diskriminazioa izendatzeko erabiltzen den terminoa.
- 109/ AEBko akademikoa, arrazaren teoria kriktoaren alorrean espezializatu. Kaliforniako Unibertsitateko (Los Angeles) Zuzenbide Fakultateko eta Columbia Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea. Arrazari eta generoari buruzko gaiak ikertzen ditu. Intersektionalitate terminoa artikulua

- honetan definitu zuen: «Demarginalizing the Intersection of Race and Sex: A Black Feminist Critique of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory and Antiracist Politics», University of Chicago Legal Forum: 1989. lib., 1. zk., 8. artikulua. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2KIJYIN>
- 110/ AWID (2004): *Interseccionalidad: una herramienta para la justicia de género y la justicia económica*. Derechos de las mujeres y cambio económico, 9. zk., 2004ko abuztua. Eskuragarri hemen
- 111/ Jubeto, Yolanda eta Mertxe Larrañaga(2014), *op. cit.*
- 112/ Nazioarteko mugimendu feministaren leloa.
- 113/ Kate Milletek erabili zuen ingelesezko sisterhood terminoaren itzulpena da. Emakumeak Frantziako Iraultzaren «askatasuna, berdintasuna, anaitasuna» leloak biztanleriaren erdia kanpoan uzten zuela konturatu zirenean, anaitasunaren ideari aurre egiteko asmatu zen, beste zenbaiten arabera.
- 114/ Asociadas por lo Justo-JASS(2012), *op. cit.*, 24. or.
- 115/ MARES Madrid (2019): *Guía de prácticas de corresponsabilidad en la Economía Social y Solidaria*. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/35fPlsk>
- 116/ Razaviren zaintzaren diamantean oinarrituta (2007), in MARES Madrid (2019) *op. cit.*
- 117/ Geuk egina.
- 118/ William H Sewell (1992), in Zapata Hidalgo, María (2017): «Importancia de la agencia y las prácticas corporales en la recuperación de las depresiones», Contextos 7. zk., 71.-85. or.
- 119/ Ortner, Sherry (2006): *Anthropology and social theory: culture, power and the acting subject*, Duke University Press.
- 120/ Silvia López(2019),
- 121/ Maxine Molyneux (1985) Pikara Magazine aldizkariaren Glossario feministan. Eskuragarri hemen: <https://labur.eus/jhQ3c>
- 122/ Navarro, Natalia (2003), *op. cit.*, 127. or.
- 123/ ACSUR Las Segovias (2006): *Cuestiones esenciales sobre género. Conceptos Básicos*, 45. or. Eskuragarri hemen. Disponible en: <https://n9.cl/ik5ob>
- 124/ ACSUR Las Segovias (2006), *op.cit.*
- 125/ Navarro, Natalia (2003), *op.cit.*
- 126/ 197/2008 Dekretua, azaroaren 25ekoa, *op. cit.*
- 127/ Gaur egun Lankidetzarako Euskal Agentzia.
- 128/ Navarro, Natalia (2003), *op. cit.*, 51.-88. or.
- 129/ Piris, Silvia. (2019), *op. cit.*
- 130/ REAS Euskadi (2019), *op. cit.*
- 131/ ekoSolFem REAS Euskadiko lan-talde egonkor bat da. 2013az geroztik ari da lanean, ikuspegi feminista ekonomia solidarioaren diskurtsoan eta praktikan txertatzeko.
- 132/ SSousa Santos, Boaventura (2003): Reconhecer para libertar: os caminhos do cosmopolitismo multicultural, Civilizao Brasileira, Rio de Janeiro, hemen aipatua: «Medidas de Acción Positiva», *Maleta pedagógica: kulturartekotasunaren ikuspegi*, Fundació Surt, 56. or. 133/ Rigat-Pflaum, María (2008): «Un enfoque para la igualdad de género», in Revista Nueva Sociedad (NUSO), 218. or. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/3ifsR01>
- 134/ Álvarez Ferrero, Beatriz (zuz.) (2015): *Guía de la AECID para la transversalización del enfoque de género*, Manuales cooperación española 2015, AECID, Madril. Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2ZvVttQ>
- 135/ RIPESS: La ESS con perspectiva de género (Grupo Mujer y Economía Social y Solidaria de RIPESS-Red Intercontinental de Promoción de la Economía Social y Solidaria taldearen martxoaren 8ko komunikatua). Eskuragarri hemen: <https://bit.ly/2ycNpoa>
- 136/ Navarro, Natalia (2003), *op. cit.*, pág. 124.
- 137/ JASS-Asociadas por lo Justo (2012), *op. cit.*, 9. or.
- 138/ Cabrera, Melissa, Ortega, Naroa eta Zalaoa Pérez (2019): *op. cit.*, 28. or.

Definizioen aurkibide alfabetikoa

1.Androzentrismoa	12	25.Heteropatriarkatua	21
2.Ekintza positiboa	71	26.Elkarmendekotasuna	46
3.Binarismoa eta sexu-genero sistema	15	27.Interseksionalitatea	62
4.Genero-arrakalak	31	28.Pertsonala politikoa da	61
5.Genero-ekitatearen aldeko erakunde-aldaketa	70	29.Matxismoa	18
6.Agentzia-ahalmena	66	30.Mikromatxismoa	18
7.Kapitalismo heteropatriarkala	30	31.Genero-premia praktikoak eta genero-interes estrategikoak	69
8.Erantzunkidetasuna	64	32.Antolakunde bizigarriak	57
9.Zaintza(ren krisia eta kate globalak)	25	33.Patriarkatua	21
10.Antolakundeen kultura	36	34.Kooptazio-prozesuak eta parekoen arteko elkartasuna	39
11.Deseraikitzea	60	35.Generoa ezartzeko prozesuak	37
12.Deshazkundera	51	36.Botere-harremanak	22
13.Berdintasun eza	23	37.Rolak eta genero-estereotipoak	14
14.Lanaren banaketa sexuala	17	38.Segregazio horizontal eta bertikala	33
15.Ekomendekotasuna	46	39.Sexismoa	18
16.Ekofeminismoa	54	40.Zoru itsaskorra	35
17.Ekonomia komunitarioak	54	41.Ahizpatasuna	64
18.Zaintzaren ekonomia	47	42.Bizitzaren iraunkortasuna	42
19.Ekonomia ekologikoa	49	43.Lana	48
20.Ekonomia feminista	44	44.Genero-zeharkakotasuna	72
21.Ekonomia solidarioa	43	45.Beirazko sabaia	34
22.Ahalduntzea	73	46.Indarkeria ekonomikoa	24
23.Zaintzaren etika (atzerakoia)	28	47.Indarkeria matxistak	24
24.Heteronormatibitatea	19		



Hitzak eta kontzeptuak behar ditugu gure praktiken inguruan teorizatzeke eta praktika horiek hobeto ulertzeke, partekatzeko, batzuetan esanahi berriak emateko eta geure eztabaida kolektiboetan txertatzeko. Iruditeriak eta kontakizunak sortzeko ere behar ditugu, hainbeste desiratzen dugun eta behar dugun gizartearen eraldaketa integralean aurrera egin ahal izateko.

Ekonomia solidarioa eraiki eta indartzeko ezinbestekoa da feminismoaren ekarpena, bai eraldatu nahi dugun sistema sozioekonomikoa ahalik eta zehatzen aztertu eta deskribatu ahal izateko, bai eraiki nahi dugun etorkizuna izendatzeko, bai eta etorkizun hori lortzeko tresnak, praktikak eta bideak identifikatzeko ere.

Argitalpen honek ez du ekonomiari loturiko termino feministen bilduma osoa izateko xederik. Aitzitik, bere asmoa ekonomia solidarioaren ikuspegitik alternatiba eraldatzaileak garatzeko erabilgarrien eta aplikagarrien deritzegun terminoak eskaintzea da. Orobat, ezinbestean feminista izango den ekonomia solidarioa garatzen laguntzeko hizkera eta narratiba komunak eraikitzea da hiztegiaren helburua.